

uk

190. zenbakia / 2011ko otsailaren 28a



Prestatu azterketa euskaraz,
eta zu zeu izan zaitezke...

Hurrengo irabazlea!

Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika
ezazu!

Gidabaimena
euskaraz

Sariaren irabazlea Joseba Legarreta izan da.
ZORIONAK JOSEBA!

Getxoko Udalak, Erandioko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak, Bizkaiko beste 10 udalerrirekin batera, **Gidabaimena euskaraz kanpaina** bideratu zuten **iaz**. Azterketa euskaraz egiteagatik klase praktiko bat oparitu zitzaizen ikasleei eta guztien artean lau lagunentzako Interrail bidaia zozketatu egin da. Zozketan, Getxoko **Joseba Legarreta** atera da irabazle. Gure inguruko herrietan hiru lagunek egin dute azterketa teorikoa euskaraz:

Erandioko ikasle batek, Sopelanako batek eta Getxoko beste batek, zozketaren irabazlea, hain zuzen ere.

Bizkaiko 18 udalek eta 29 autoeskolak parte hartu zuten kanpainan. Udal horietako euskara zerbitzuek 1.070 eskuliburu banatu zituzten kanpainari atxikitako autoeskola horietan. Gainera, autoeskolet euskarazko materiala eskura dezaten, udalek 4.100 euro banatu dituzte diru-laguntzetan.



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Menthaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarleen topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. *Publicine* erakusketa, Artea merkataritza zentroan.
7. LEHEN ETA ORAIN. Ereaga, Getxo.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Idoia Ehizmendi.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Zaintza kamerak kaleetan.
28. ARGAZKIA. Ventura Hotela.
30. BERBETAN. Arantxa lurre.
34. FOTOGRAFIA. Igor Mercado eta Andoni Fernandez.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. *Gemika-Bizkaia*. 75 urte gogoan.
43. MUSIKA. Berri Txarrak, Amerika Tour 2011.
44. LIBURUAK. Euskal idazleen ipuinak nederlanderara.
45. KIROIAK. Elaija Torrontegi.
46. ELKARRIZKETA. Hondakinak, bilketa atez ate.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Motagane, Erandio.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Berantzagi Portugaleten, 1972.
54. AITORMENAK. Maribel Salas.

Azala: Igor Mercado eta Andoni Fernandez

www.ukaldizkaria.biz



30 Arantxa lurre

Berbetan

Emakume eta antzezlearen ikuspuntutik egin digu berba; antzerkia jendeareta iraultzeko tresna da.



11 Idoia Ehizmendi



54 Maribel Salas



Leioa RENTACAR
ibilgailu-aloalrua

Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Armando Llamosas

> arkeologoa

Turismoa vs Kultura

Azken urteotan turismoak eta kultu-
rak elkarrekin lotura handia dute. Geuk ere
lotzen ditugu oporraldietan kultura-tu-
rismoa egiten dugunean. Horri esker, kul-
tura, ondarea hain zuzen ere, diru-iturri bi-
lakatu dugu. Ez dago arazorik, dirua lortze-
ak ondarea kontserbatzen eta disfrutatzen
lagun baitezake; izan ere, askotan bisitariek
mantentzen dituzte monumentuak. Tama-
lez, onura dena arazo bihur daiteke.
Laguntza zena beharra da orain. Beraz, kul-
tura ondareari buruz hitz egiten den
bakoitzean, berehala (edo lehenengoa) nor-
baitek jasangarria den galdetzen du. Zaila
da orain jasangarria ez den ondarea man-
tentzea, ekonomikoki jasangarria jakina.

Hala ere, gure inguruan jasangarri ez
den ondare asko dago. Inoiz ez da izango
errentagarria gure ondarea, ekonomiari
dagokionez, jakina. Bizkaia Zubia, gure
ondare nazioartekoena, itota dabil eta diru-
laguntzez bizi da. Monumentu oso gutxi
dira jasangarriak ekonomiari dagokionez,
eta direnak turismoarekin lotuta izan ohi
dira. Jakina! Hor dago diru-iturri nagusia:
Gure ondarea erakargarri jarriko dugu kan-
potarrak gurera etor daitezen dirua uztera.

Azken bi lerro horietan ondarearen
traizioa ezkututzen da. Beti bezala, jasangar-
ria eta turismo hitzetan ez dago arazorik,
bere erabilpenean baizik. Gakoa, gehi-
enetan bezala, helburua da, hau da, zerta-
rako den kultura-ondarea: Polit egiteko,
gure nortasuna azaltzeko, gure historiare-
kin gu lotzeko,, eta amaieran, baina
urrun, oso urrun, kanpotarren turismora-
ko eta haiek disfrutatzeko.

Horregatik, udal batzuek, Barrikak eta
Sopelak batez ere, baina beste batzuek ere
bai, bere kultura-ondareaz gogorutzen di-
renean, beldurra ematen dute. Gure esku-
aldeak aktibitate oso eskasa du kultura-
ondareari dagokionez. Arkitektura sailek



(des)egiten dute ondarea gure herrietan.
Eta horretaz, zerbait eginda badago turis-
mo arloan dago. Turismoaren testuinguru
horretan nahasten da surfa, komertzioa,
jaketxeak, itsas labarrak, flysha, natura,
paisaia eta, nola ez, arkeologia eta er-
mitak. Koktel hori oso erakargarria denez,
turismoa ekartzeko plangintza egingo da.

Ez, prozedura ez da hori, ez du izan
behar. Beste helburua bat izan behar du: kul-

tura ondarea dugu, oraindik (gero eta gutxia-
go), askotan oso ezezaguna eta ulergaitza
guretzat. Egin dezagun plangintza bat hori ez
gertatzeko, bertakoek ikus eta disfruta deza-
ten (zenbatek ezagutzen dituzte bere herriko
baselizak?), eta gure ondareari buruz gehiago
hitz egin dezagun gure hedabideetan, gure
erakustaretoetan, eta gure udal-politiketan.
Gero, etor daitezela turistak, harrotasunez
erakutsiko diegu gure ondarea eta. ○

gu geu

Emakume langilearen mozorroak

Data garrantzitsuak pilatu zaizkigu esku artean daukazun UK-ko 190. zenbaki honetan.
Martxoaren lehenengo bi asteburuetan pailazoez, txanogorritxoek, trogloditek eta lumadun
indiarrek hartuko dituzte Uribe Kostako hainbat herrietako kaleak; baita kalejirek, tailerrek eta
kontzertuek ere. Besteen azalean jarri eta egun (edo gau) batez gura duzunaren nortasuna
hartzeko aukera ematen dizuten aratusteak heldu dira. Gehienon gustuko ospakizuna.

Zoritzarrez, martxoan dena ez da ospakizuna; 8an, aldarrikapena morez jantziko da beste urte
batez. Aratusteetara itxaron barik, hamaika mozorro jarri behar izaten ditugu emakumeok urteko
365 egunetan: ama nekaezinarena etxean, langile finarena lantokian, maitale sutsuarena logelan,
lagun dibertigarriarena koadrilan, parranda zale alaiarena kalean... hori guztia eskatu eta bueltan
egunkarietako orriak betetzeko besterik balio ez duten eskubideak ematen dizkigute. Horretaz
asko dakite Idoia Ehizmendi, Getxoko Berdintasun Teknikariak edo Arantxa lurrek, Getxoko
Antzerki Eskolako zuzendariak. Horiek dira zenbaki honetako protagonistetako batzuk; emakume
zein gizon adi irakurri, esateko gauza garrantzitsuak baitituzte.

UK-ko lantaldea



ARTEA MERKATARITZA ZENTROA, 2011KO OTSAILA

Umeen gisan egindako eskulturak/ Plastilina umeen kontua ei da, haurren lehen
eskulturak egiteko modelatzeko ore gisa ezaguna. Baina bizitzan sorpresak hartzen ditugu maiz, hau da une horietako bat. Izan
ere, plastilina eskulturak ikusgai izan dira Leioako Arte merkatari zentroan: *Plasticine*. Hollywoodeko aktoreen eta
pertsonaia ezagunen 50 eskultura izan dira. Bartzelonako Plastilina Animazio Eskolako ikasleek egin dituzte artelanak eta
Arteko bezeroei gozarazi diete bi astez. ○ / Argazkia: Asier Mentxaka




Kopiak **SALGAI** bulego barrian

Martikoena 16, 2. solairua

Algorta (Getxo)

Alangoko Osasun Zentroaren alboan

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



Iraganez doa denbora* beti / EREAGA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Erandioko “gizartea”



Erandioko Legazpi kalea, Altzaga auzoan

Testua: **Miren Loizaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Bazkalosteko kafea

Begiratu dezagun astiro
ondoko erretratoa
eskualdeko herri bateko,
kale bateko, txokoa
lehen bistazoan igar daiteke
ez da edonolakoa;
nahiz andrearentzako ez izan,
bereztasun nahikoa
ate gaineko GIZARTE hori
da bereizteko gakoa.

Zer da, etxe, denda, ala txoko?
Taberna ala elkarte?
Jarri zuenak marketing-ean
bazuen nahikoa Arte;
ate zahar bat erdi zabalik
eta gainean GIZARTE
gizarteari gonbidapena,
inor ez dela aparte
hori pentsatu dut benetako
historia jakin arte.

Erandioko kale bateko
Soziedadea da berez,
nahiz ez den hain erreza ulertzen
topatu ezker aurrez;
lehenago SOCIEDAD jartzen zuen
euskaratu zuten errez,
euskalduntze prozesuan sarri
gertatzen da hau tamalez,
garrantzitsuena asmoa da
EUSKARATZEA (..ala ez??)

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



**COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.**

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarria
- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.



Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

euskara > Nahi dudalako kanpaina Uribe Kostako ikastetxeetan



www.nahidudalako.com gunean duzu informazio guztia

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa euskaraz egitera animatzeko helburua dauka *Nahi dudalako!* kanpainak, hau da, DBHko laugarren mailan ari diren gazteek ikasketak euskaraz egiten jarraitzeko helburua. Alkarbide Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak koordinatuko du kanpaina eta Uribe Kostako hainbat ikastetxek parte hartuko dute: Plentziako Uribe-Kosta inistutuak, Sopelako Ander Deuna ikastolak, Getxoko Aixerrota eta Fadura inistutuak eta Leioako Jose Miel Barandiaran eta Artaza inistutuak, Askartza ikastetxeak eta Ostalaritza eskolak. Ikasleei banatuko diete eskuorria, ikasketak euskaraz jarraitzeak eskainiko dizkien abantailen eta aukeren berri izan dezaten. Kanpainaren ardatz nagusia da www.nahidudalako.com webgunea. Bertan bete daiteke egungo hezkuntzari buruzko inkesta, eta sariak eskura litezke: netbooka, osoko multiabentura ekintzak, sakelakoa, argazki-kamera edota musika eta liburuak erosteko bonoak. ○

bertsolaritza > inertziak eta kontraesanak Bertsolamintza ekimenean



www.bertsoa.com gunean jarrai daitezke hitzaldiak

Martxoaren 12 arte egingo dira Bertsolamintza jardunaldiak Euskal Herriko hainbat herritan. Laugarren edizioa da eta bost saio egingo dituzte *Inertziak erantzi, garena jantzi* lelopean, bertsogintzaren inertziak eta kontraesanak aztertzeko. Otsailaren 26an egin zuten lehen saioa Saran. Bigarrena izango da martxoaren 1ean, Gasteizen; Oier Araolazak berba egingo du txapelketei buruz eta Fredi Paia epaileen lanari buruz. Hilaren 4an Jon Martin eta Estitxu Eizagirre arituko dira bertso eskolez eta Jon Ansa bertsokeraz eta sistemaz, Iruñean. Martxoaren 10ean, Egoitz Aizpuruak gai-jartzaileak izango ditu hizpide eta Ibon Arrizabalagak gizontasuna eta emakumetasuna. Martxoaren 12an egingo dute azkena Villabonan: laburpena eta bertso saioa. ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria



...lehenago garaiak...



...itsasoa

www.siaazgetaria.com / info@siaazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

euskara > euskarazko hedabide ez publikoak baliabide eske



www.blogak.com/ehedabideak gunean irakur dezakezu agiria

Otsailean editorial bateratua argitaratu zuten publikoak ez diren euskarazko 70 bat hedabidek. Sektorearen egoera ezagutarazi eta etorkizunari aurre egiteko baliabide gehiagoren beharra plazaratu zieten erakundeei. UK-ko aurreko zenbakian irakur daiteke. Hilaren 15ean, barriz, beste urrats bat egin zuten bide berean, agerraldi bategaz. Erakundeakaz eta alderdiakaz bilduko direla iragarri eta hainbat datu plazaratu zuten: Publikoak ez diren euskarazko 100dik gora hedabidek 450.000 irakurle eta ikus-entzule daukate (euskaldunen %57), 600dik gora langile, 27.000.000 euroko aurrekontua eta 7.000.000 euro ordaintzen dute gizarte segurantzaz eta zerga bidez; diru-laguntzetan 7.500.000 euro jasotzen dute. Kontuan hartzeko sektorea osatzen dute: besteak beste, hizkuntza normalizaziorako eragile dira, lanpostuak sortzen dituzte eta ekarpen ekonomikoa egiten dute. Kanpaina jarrai daiteke www.blogak.com/ehedabideak gunean. ○

getxo > txoriphot argazki lehiaketara lanak aurkez daitezke



http://txorimalogaztetxea.blogspot.com

Apirilaren 4tik 16ra izango da Txoriphot argazki jaialdia, Getxoko Txorimalo Gaztetxeak antolatuta. Ekimen satirikoa prestatu dute gazteek, Gaztetxearen urteurrenaren karira, eta ez edozelangoa; apirilaren 16an beteko ditu bost urte Txorimalok. Argazki lehiaketa da ekimenaren muina eta lanak aurkez daitezke apirilaren 2ra arte. Gaia ere urteurrenagaz erabat lotuta dago: *Bost*. Aldai Patronatuan erakutsiko dituzte argazkiak eta bertan bozkatuko dute herritarrek zeintzuk dituzten gustukoen. Lehiaketan parte hartu gura duenak UK, Ajuria eta Gestoras tabernetan edota Txorimalon utz ditzake argazkiak, argazki paperean eta gutunazal baten barruan. Bertan idatzi beharko ditu izen-abizenak eta harremanetarako datuak. Sari itzelak iragarri dituzte. ○



“Niretzat martxoaren 8a aldarrikapen eguna ere bada, oraindik badagoelako zer eginik”

Idoia Ehizmendi > Getxoko Udaleko berdintasun teknikaria

Martxoaren 8a morez margotutako eguna da gure egutegian. Emakume langilearen nazioarteko egunaren harira, kaleak ekitaldiz eta protestaz betetzen dira urtero. Horretan ibiliko da buru-belarri Idoia Ehizmendi Getxoko Udaleko berdintasun teknikaria: “*Bi motatako ekintzak antolatzen ditugu martxoaren 8an; alde batetik, ekitaldi kulturalak, eta bestetik, hausnarketara bultzatzen dutenak*”. Urtero gai bati helden diote Getxon, herriko emakumeen elkartekaz batu ostean: “*Hilean behin batzen gara, eta berdintasun planari buruzko ekintza guztiak foro horretan eztabaidatzen ditugu. Berdintasun Zerbitzuaren helburu estrategikoa da emakumeen partehartzea bultzatzea*”. Prekarietatea da aurten aukeratu duten gaia. Egun horretan ez ezik, urte osoan zehar ere hamaika ekintza antolatzen ditu Berdintasun sailak. Hala ere, martxoaren 8a “aprobetxatzearen” aldekoa da Ehizmendi: “*Momentu oso ona da aldarrikapen zehatzak egiteko, fokoak hortxe jarrita daudelako. Niretzako aldarrikapen eguna da; badugulako zer ospatu honaino heldu garelako eta aurrerapen lar eman direlako; baina oraindik badago zer eginik*”. Era berean, Tas-Tas irrati libreak kulturartekotasunari eta immigrazioari buruzko irratsaio bat egiten du ikaztegiak. Izan ere, gaztetatik hainbat mugimendu sozialetan ibili da: “*Baina feminismoa izan da bizitzan izan dudan aldarrikapen nagusia*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Zubia plaza museo bihurtua

Areetako Zobia plaza barritzeko lanak hasi dira eta **Bizkaiko Zubiko piezak apaingarri** jarriko dituzte laster; lanak direla eta **zirkulazio aldaketak** egin dituzte

Dagoeneko martxan dira **Areetako Zobia plaza** barritzeko lanak. Bizkaiko Zubiari eskainia egongo dira barrikuntzak; izan ere, zubiko pieza zaharrakaz kaleko museo txikia osatuko dute plazan bertan, argiztapen bereziari esker gau eta egunez bisitatu ahal izango dena. Lanak direla eta, zirkulazio aldaketak egin dira.

Bizkaiko Zubiari eskainitako plaza izango da, lanak amaitutakoan, Areetako Zobia Plaza. Izan ere, plaza barritzeko lanekaz batera, zubiko pieza zaharrak kalera aterako dituzte, museo txikia osatzeko. Plazaren oinezkoentzako gunea arkupeetara arte luzatuko da. Bilboko Alhondegia eraikinean dauden antzekoak izango diren eserlekuak jarriko dituzte, “leds” argiakaz argizatuta. Azken horiek, zubiko piezak argiztatzeko balio izango dute eta “kaleko museoa” gauzez bisitatzeko aukera emango dute. Plazaren aldamenean, herrestatze frogen erakustaldietarako probalekua egingo dute.

Azken horretatik hurbil, Bizkaiko Zubiko pieza zaharrak jarriko dituzte; orain arte, Portugaleteko etxola batean egon dira gordeta. Alde batetik, ontzitxo mugitzen zuen orga joateko beharrezkoa zen jatorrizko orgabidea ikusi ahal izango da. Horregaz batera, XIX. mendeko gupil bat jarriko dute, lurrun-motorea erabiltzen zen garaiakoa. Antzinako polea bi eta motorearen erreduktorea ere ikusi



Lanak direla eta zirkulazio aldaketak egin dira

ahalko dira. Zobia Somorrostro gorri kolorez margotuko dute.

Egitasmoa Udalaren eta Bizkaiko Zubiaren elkarlanean jaio da eta Gizadiaren

«Plazaren oinezkoentzako gunea handitzeaz gain, herrestatze frogen erakustaldietarako probalekua jarriko dute; hori dela eta, zirkulazio aldaketak egongo dira»

Ondare izendatutako zubiarentzako bisitari gehiago lortu gura du. Joan den urtean, 72.000 lagunek zeharkatu zuten zubiaren pasabidetik.

Zobia plaza oinezkoentzat bihurtzeko aipatutako lanak direla eta, Txurruka kaia eta Eduardo Coste kaleen artean zir-

kulazio aldaketak egin dituzte. Alde bate-tik, Txurruka kaia kalea, Mesedeetako eta Paulino Mendibil artean, norabide alda-keta izango du eta norabide bakarrekoa izango da Paulino Mendibiletik Mese-deetarantz.

Horrez gain, Txurruka kaia kaleko Paulino Mendibil eta Zobia plazaren ar-teko zatia norabide bakarrekoa izango da Gobela kalerantz. Taxiei eta zamalanei sa-rreka murriztuko zaie.

Hirugarrenik, Tomas Olabari kaia kaleko Zobia plaza eta Gobela kalearen arteko zatia norabide bakarrekoa izango da Gobelarantz.

Azkenik, Novia Salcedo kaleko To-mas Olabari kaia eta Eduardo Coste ka-learen arteko zatia norabide bakarrekoa izango da, Tomas Olabari kaia kaletik Eduardo Costerantz. o

Emakume eta langile

Martxoaren 8a dela eta, hainbat ekimen prest



Emakumeen eskubideei buruz kontsultak egiteko doako abokatua egongo da 8tik 10era

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna dela eta hainbat ekimen antolatu dituzte herriko hainbat eragilek.

Udaleko Berdintasun Sailak eta herri-ko zenbait emakume elkartek, martxoaren 8tik 18ra luzatuko den egitaraua prestatu dute. Hasteko, doako aholkularitza zerbitzua egongo da, emakumeak lan esparruan zein bestelakoetan bizi dituzten eskubide urraketen inguruan doan informa daitezen. Karpa jarriko dute eta bertan abokatu bat hurbiltzen direnen galderak erantzuten saiatuko da. Zerbitzua 17:30etik 19:30era egongo da zabalik, 8an Geltokia plazan, 9an Areetako metro urteeran eta 10ean Bidezabal. 11n, *Poetry*, Lee Chang Dong zuzendariaren filma proiektatuko dute, 22:30ean Andres Isasi Musika

Eskolan. Egun berean, Josune Muñozek gidatutako bisitaldia egingo dute, “*Gehiago dago zugan. Emakumeari buruzko irudiak Erdi Aroan (XIII-XV. mendeak)*” erakusketara; parte hartzeko Berdintasun Zerbitzuan eman behar da izena. Hurrengo egunean antzerki estreinaldia izango da Quemadura Teatro konpainiaren eskutik, 20:00etan Musika Eskolan. 16an, Cristina Ayuso historialariak Getxoko emakumeen historiaren inguruan egingo du berba, 19:00etan Jabekuntza Eskolan (Martikoena 16, Algorta). Azkenik, lan merkatuaren eze-gonkortasunari buruzko solasaldia egingo dute, 18an 19:00etan Villamonten.

Bestalde, Getxoko Bilgune Feminis-tak manifestazioa deitu du martxoaren 8rako, 19:30ean Geltokia plazatik. o

APIRILA ARTE FAMILIA UGARIEI LAGUNTZAK

Apirilaren 1era arte zabalik egongo da familia ugariantzat diru-laguntzak eskatze-ko epea. 90.000 euro emango ditu Udalak 2011n familia-ugariak laguntzeko. Getxo Kirolak eta Musika Eskola bezalako era-kunde autonomoetan edo Ludoteka beza-lako zerbitzuetan ere baldintza bereziak izango dituzte. Eskatzaileek 2011ko otsailaren 1ean familia ugariaren izaera izan beharko dute eta Getxon erroldatuta egon beharko dute. Eskatera Udaletxeko Erregis-tro Orokorrean, Herritarren Arretarako Bulegoetan eta Legeak aurreikusitako tokietan aurkeztu beharko dute.

Info+: www.getxo.net

HONDAKINAK KRISIAREN MENPE ORAINDINO

2009an baino 300 tona hondakin gehiago bildu ziren 2010ean; hala ere, sortutako hondakinak 2008koen azpitik egon ziren. Guztira 32.700 tona batu ziren 2010ean, %78,29 birziklatu ezin zen materiala eta gainontzekoa, 7.000 tona inguru, birziklagarria, %20 inguru. Hondakinen bilketari buruzko datuak aurreko urtekoaren antzekoak izan dira eta oraindino ere krisiaren eragina nabaritu dela azpimarratu dute Udal iturriek. Barriz ere, papera izan da gehien birziklatu dena (3.038.152 kilo), beira (1.626.840 kilo) eta eta ontziakaz (963.232) batera.

GOIZEKO SAIO BARRIA GETXO IRRATIAN

FMko 87.6an entzun daitekeen Getxo Irratiak saio barria aurkeztu du. Astelehenetik barikura, goizeko 07:45ean Egun On, Getxo! irratsaioak Getxon zein munduan eman diren albisteen barri emango du. Horrez gain, herriko albisteen protagonisten ahotsak entzun ahal izango dira, zuzenean elkarrizketatuko baitituzte. Entzuleen parte hartzea bultzatu gura dute eta horretarako eta iradokizunak helarazteko helbide elektroniko bat abiatu dute.

Info+: egunongetxo@getxo.net

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak

Zurezko Egiturak

Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144


<http://www.etxeart.com>

Zabala Eskolako Mendeurren Batzordea > Zabala Eskola 100 urte

“Martxoaren 5ean 100 kilo txistorra saldu gura ditugu; herriari zabalik egongo da patioa”



Zabala Eskolako Mendeurren Batzordea

Urtebetetze biribila prestatzen ari dira Algortako Zabala Eskolan; ekainaren 25ean 100 urte betetzen dutela ospatuko dute, jaialdi erraldoi batean. Egun handia prestatzeko Mendeurren Batzordea buru belarri dabil lanean. Argazki erakusketa, kamisetak, ekitaldia, liburua, eskolako maketa, erromeria... denetarik prestatu dute. Motorrak berotzeko eta dirua batzeko, aratuste jaia egingo dute martxoaren 5ean. Galiarrek patioa hartu eta erronka gozoa proposatuko dute: 100 kilo txistorra saltzea! Guztiontzako zabalik egongo da Zabala; beraz, hurbildu eta... on egin!

—Zer egin duzue orain arte mendeurrenera begira?

—Irailean, ikasturte hasieran, hasi ginen beharrean. Hasteko, urteurren jairako gura genuena pentsatu genuen. Egitarau txiki bat prestatu eta horrek ekonomiko ki zer suposatzen zuen aurreikusitu genuen. Dirua lortzeko beste ekintza batzuk prestatu behar izan ditugu, dirutza behar baitugu jaia antolatzeko. Gabonetan eskolako egutegia saldu genuen; diru gutxi lortu genuen, baina ikas komunitateak urteurrenaren barri izan dezan balio

izan digu. Zozketak ere prestatu ditugu, inguruko dendakaz eta tabernakaz elkar lanean. Aratuste jaian salduko ditugu, kamisetakaz batera.

—Zer egingo duzue ekainaren 25ean?

—Egun osoko jaia izango da. Goizean umeen jaialdia egingo dugu Biotz Alai plazan, herriak ikus dezan urteurrena ospatzen ari garela; eskolako ume guztiek parte hartuko dute, gela bakoitzak zer bait prestatuko du gurasoei erakusteko. Lehenengo ekimen hori, barrura begirakoa izango da batez ere. Hamaiketako

eta gero eskolara bueltatu eta ekitaldi ofizialagaz hasiko gara. Udaleko eta Erakundeetako ordezkariak gonbidatu ditugu, orain 100 urte egin zuten bezala. Txalapartariak, bertsolariak, musikariak eta dantzariak egongo dira ekitaldian. Gurasoek txosna jarriko dute eta herribazkaria, erromeria eta magia saioa egongo da arrastian. Argazki zaharren erakusketa ere prestatzen gabilta. Horrez gain, liburua prestatu dugu, abenduaren 18rako, eskola zabaldu zen egunerako, prest eduki gura duguna. Jai egunean, orain dela 100 urteko eta gaur egungo

«Argazki erakusketa, kamisetak, zozketak... denetarik urteurrenerako»

ikasgela bana atonduko dugu, gauzak zelan aldatu diren ikusteko.

—Eta motorrak berotzeko... martxoaren 5eko aratuste jaia.

—Eskola herri galo bihurtuko dugu. Erronka bat jarri dugu: 100 kilo txistorra saltzea. Edabe magikoa ere salduko dugu; salda berezia izango da. Goizean umeentzako tailerrak eta jolasak egongo dira eta animaliak ekarriko ditugu. Zabalako patioa herriari zabalik egongo da.

—Zer nolako erantzuna jaso duzue?

—Espero genuena baino txikiagoa. Ilusio handiz beharrean dabilen taldea badago, baina gurasoengandik ez dugu espero genuen parte hartzea lortu. Ikasle ohi gehiago ere espero genituen. Ageda Deuna egunean deialdi berezia egin genuen eta hunkigarria izan zen jasotako erantzuna; patioa bete genuen.

—Deialdia hemendik?

—Lan ederra da, baina besoak behar ditugu; beraz, anima daitezela! o

zabala100urte@gmail.com / 94 460 68 18

Mozorroa prest duzu?

Tailerrak, kalejirak eta kontzertuak martxoko lehenengo **asteburu bieran**



Gatibu taldeak Portu Zaharrean joko du martxoaren 12an

Asteburu bitan luzatuko da aurtien aratusteetarako Kultur Etxeak antolatutako egitaraua. Martxoaren 4an, “*Gaur Jaia*” antzerkiagaz hasiera emango zaio ospakizunari, 18:00etan. Ordu berean, tailerrak egingo dituzte Zabala eskolan. Ondoren oinezkoen kaleak girotuko dituzte fanfarrak eta eguna biribiltzeko Nuevo Talisman taldearen show-a ikusi ahal izango da 21:30ean Geltokia plazan.

Hurrengo egunean, tailerrak eta haur eta gazteentzako dantzaldiaz gain, erraldoi, buruhandien eta joaldunen kalejira egongo da 12:00etan Agurra eta Simon Otxandategi taldeen eskutik. Domekan,

Erdizka Lauetan taldearen emanaldia egongo da 19:00etan Geltokia plazan. Horrez gain, Agurra eta Clowntukada taldeek eta Txopolis fanfarreak kaleak girotuko dituzte goiz zein arrastiz.

Hilaren 11 eta 12ko astebururako aratusteen errepikapena antolatu dute. Barikuan, kalejira Algortako kaleetan Portu Zaharrerainoko bidea girotuko du eta 22:30ean Banda de la Maria taldeak kontzertua eskainiko du Portu Zaharrean. Zapatuan, kalejiren ostean, Zain eta Gatibu euskal taldeen musika entzun ahal izango da, 22:00etan Portu Zaharrean. o

GOTZON BARANDIARAN IRAKURZALEEN TXOKOAN

Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoak literatura zaleentzako solasaldiak eskaintzen jarraitzen du 2011n. Martxoaren 3an, Gotzon Barandiaran idazle larrabetzuarra hurreratuko da Algortako Aldai Patronatura, 20:00etan. *Errotik*, idazle gaztearen lehen eleberriak, Bilboko Euskalduna ontziolak 1984tik 1987ra bitartean izandako gatazkak ditu protagonista. Luis Urresti eta honen alaba den Lorea pertsonaia literarioak erabili ditu garai gatazkatsu horietan gertatutakoak kontatzeko. Irakurzaileen txokoaren hurrengo saioetan, Eider Rodriguez eta Aingeru Epaltza idazleak hurreratuko dira Aldaira.

Info+: www.egizu.org

JON URRAZA MAX SARIETARAKO HAUTAGAI

Jon Urraza aktore algortarra Max Antzerki Sarien XIV. edizioko Euskal Autorearen kategoriako saria irabazteko hautagai dugu. 2009ko irailaren 1etik 2010eko abuztuaren 31 arte estreinatu diren lanak sarituko dituzte Max Sarietan. Urraza, “*Bestela ondo, ezta?*” lanagatik izango da hautagai. Beragaz batera, Agurtzane Intxaurre eta Arantza Iturbe “*Aitarekin bidaian*” lanagatik eta Alfredo de Etxabe “*Mirentxu*” lanagatik eskuratu ahal izango dute saria. Kordobako (Espainia) Antzokian emango dituzte sariak.

GETXOPHOTO 2011, IRAILAREN 1ETIK 30ERA

Getxophoto argazki jaialdiak 2011ko edizioko zenbait ezaugarri aurkeztu ditu dagoeneko. Aurtien, irailaren 1etik 30era izango da jaialdia eta aurrekoetan bezala, argazkiak herriko kaleetara aterako dituzte antolatzaileek. Beste behin ere, Frank Kalero arduratuko da lanen aukeraketaz. “*Zahartzaroari gorazarre*” egingo diote “*gatzetasuna goraiatzeko den garai honetan*”. Gainera, aurreko edizioetako artisten lanen liburua, Getxoko Udal Liburutegietan jarri dituzte eskuragarri.

Info+: www.getxophoto.com



liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Maidor Gorroño eta Maialen Galbarriatu > Leioako Bilgune Feministako kideak

“Emakumeok aske izan behar dugu, kalea gurea ere bada eta eskubidea daukagu aske ibiltzeko”

Martxoaren 8an izango da Emakumearen Nazioarteko Eguna. Leioan orain hil batzuk sortu da Bilgune Feminista eta hainbat ekimen prestatu dute egun horren karira. Bere zeregina ezagutzeko baliatu dugu aukera.

—Martxoaren 8a dator, eta dagoeneko zer edo zer prestatuko zenuten, ezta?
—Eguna bideratuko dugu emakumea eta prekarietatea gaiaren ildotik. Bizi dugun krisi ekonomikoan emakumea da sektorerik kaltetuenetakoa, eta beharrezkoa da gaia ikuspegi horretatik lantzea kalean: emakume gazteek bizi duten egoera, alargunek, pentsiodunek, etxeko langileek e.a. bizi dutena. Emakumeen hainbat sektorek prekarietatea era gordinen bizi du. Gai horregaz lotuta antolatu dugu argazki lehiaketa. Emakumea eta krisia da gaia, bisualki islatzeko errealitate hori. Afari bat da saria, eta jasotako argazkiak erakusketa egingo dugu martxoaren 8an. Irudiak bidali behar dituzte *leioakobilgune-feminista@hotmail.com* helbidera.
—Egunean bertan zer egingo duzue?
—Martxoaren 8an *performance* bat egingo dugu herrian zehar, informazioa banatzeko; gura duen guztiak parte har dezake. Kontzentrazioa ere egingo dugu



Bilgune feministako lagunek kontzentrazioa deitu dute martxoaren 8rako, 20:00etan

Emakumearen Nazioarteko Eguna eta emakumearen eskubideak aldarrikatzeko; 20:00etan izango da, Boulevardean.
—**Duela hilabete batzuk sortu zenuten Bilgune Feminista Leioan, zergatik?**
—Euskal Herrian emakume izateagatik zapalduta gaude. Leioan egoera beretsua da, bere arazoakaz. Udalak Berdintasun Plana dauka, baina ez dago nork kudeatu. Egun zehatzak lantzerantz mugatzen da, ez dago udal-arlorik Plana garatzeko; ez

dago politika feminista eraginkorrik. Bestalde, emakumeen aurkako erasoan auzia puri-purian dago. Emakumeon kontrako indarkeriaren aurkako lerroaren baitan kokatzen dugu gune beltzen auzia. Leioan gune beltz asko dago, eta erasoak gertatu dira. Berebiziko garrantzia dauka lerro hori lantzeak. Emakumeok aske izan behar dugu, kalea emakumeona ere bada eta eskubidea daukagu kalean aske ibiltzeko. Gai horregaz lanean gabiltza. ○

EHUko Zientzia Parkea

eraikitzeko **baimena eskuratuta, campusaren** aldamenean egingo dute



Ia 200.000 metro koadro hartuko du Parkeak

Behin-betiko baimena eman du Leioako Udalak EHUren Bizkaiko campusen Zientzia Parkea eraikitzeko. Ia 200.000 metro koadroko orubean kokatuko da Parkea, campusaren aldamenean, Unberako bidean, ezkerrean.
EHUko Campusak Garatzeko 2005/2010eko Planen aurreikusitako zientzia-parke bat sortzea, *“jakintza jendarteari helarazteko eta haren garapen ekonomikoan parte hartzeko”*. Ikerketa, garapen eta zientzia-erakundearen espezializatutako puntako enpresek osatuko ei dute parke teknologikoa. Orubearen zati batean altxatuko dute 14 eraikin, 75.000 metro koadrotan.
Udalak, dagoeneko, Parkearen egoi-

tza izango dena eraikitzeko lizentzia eman du, eta Biofisika Unitatea egiteko baimena ere laster eman gura duela iragarri du. Eta ez dira lehenak. Iaz eman zuen baimena Parkean Europako Espazio Bidezko Neutroien Iturriaren azpiordezkaritza egiteko eta lau urte barru eraikitzen hasiko dira. Lakuako eta Espainiako Gobernuak 180 milioi euro inbertituko dute egitasmo horretan.
Bestalde, Saltuenako Aktibitate Ekonomikoen Parkea egiteko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aldaketak zehatza eta ingurumen-inpaktu aitortpena ere onartu ditu Udalak. Santsoena-Santi Mamiko ospitale zaharraren lur eremuan kokatuko dute. ○

INAUTERIAK IZANGO DIRA MARTXOAREN 4AN

Leioan martxoaren lehenengo barikuan ospatuko dira Inauteriak, hilaren 4an, makina bat ekitaldi iragarri dituzte. Maritxu Teilagorri Txosna Batzordeak umeentzako tailerrak egingo ditu Euskal Etxeen Plazan, 17:00etatik 20:00etara; txokolate jana ez da faltako! Beranduago hasiko da Leioako Gazteak taldeak antolatutako kalejira, 21:00etan; Plaza Gorritik abiatuko dira eta herriko plazetatik eta tabernetatik ibiliko dira 23:00ak arte. Jarraian egingo dituzte moxorro eta irrintzi txapelketak. Udalak ordu horretarako prestatu du erromeria, Ikea Barri plazan. Martxoaren 8an ere umeek izango dute non gozatu Udalaren jardueretan, Sakoneta kiroldegian.

BERBALAGUNAKAZ SAGARDOTEGIRA!

Urtariletik sartuta gabiltza sagardotegi garaian eta Leioako berbalagunek aukera baliatuko dute egun osoko plana egiteko, martxoaren 19an, zapatua. Goizeko 9:00etan abiatuko dira Ataunerantza Barandiaran Museoa bisitatzeko. Bazkaltzeko Abaltzisketako Zalbide Sagardotegira hurbilduko dira eta Beasainen egingo dute arratsalde pasatu; 20:00tan bueltatuko da autobusa. Hori dena 38 euroren truke.
Izen-ematea: leioa_berba@aek.org edo 607 632 655

POP-ROCK, MAKETAK EMATEKO AZKENAK

Martxoaren 20ra arte daukazu tartea Leioako Pop-Rock lehiaketara aurkezteko zure musika taldearen maketa. Aterpe Leioa Gaztegunera (Aldapabarrena 2) igorri behar duzu eta bost abestik osatutakoa behar du. Maila bakoitzeko irabazleak 1.800 euro jasoko du sari eta diskoa grabatuko dute bakoitzaren abesti bigaz. Lehiaketaren oinarriak eta informazio gehiago topatuko duzu www.leioa.net eta www.kulturleioa.net webguneetan.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

**Abant**

Basarrate 20 Ionia 48991 (Algorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

- Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa
- Ikaskuntzaren zailtasunak (idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

**Luberri**
Basolanak SL
Lorezaintza

Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

SHANTI PLAGARO NIETO > Feng Shui aholkularia

“Lotuta daude pertsonen osasuna eta erabiltzen dugun espazioa edo bizi garen eremua”

Otsailaren azken asteburuan Feng Shui teknika ikastaroa eman zuen Shanti Plagarok Erandion. Baina zer da Feng Shui? Zertan datza teknika berezia?

—Feng Shuiri buruz ikastaroa eman duzu Erandion, teknika bat da?
—Teknika gisa defini daiteke, baina arte parte bat dauka intuizioa behar delako eta zientzia parte bat, txinatarrek sistematizatu baitzuten espazioagaz lanketa. Beraz, elementu neurgarriak ditu Feng Shui teknikak eta intuizio apur bat ere behar da urtenbideak topatzeko. Ez da kontu teknikoa soilik. Txinatarrek sortu zuten. Natura aztertu zuten eta bertan energiak nola funtzionatzen duen, uni-bertsoa ulertzen saiatzeko. Naturan gauzak orekatuta daudela konturatu eta oreka hori bizi garen eremuetara eroaten saiatu ziren, leku horietako energia lagungarri izan dadin egiten ditugun gauzetan: deskantsatu, jan, lan e.a.
—Zergatik ari zara honetan?
—Informatikaria naiz eta uste dut oreka bilatzen dudala. Gaztetan oparitu zidaten liburu bat geobiologiari buruz. Lurraren eremu magnetikoak nola funtzionatzen duen aztertzen du eta puntu batzuk ez zaizkigula oso onuragarri. Ikastaro batean ohartu nintzen Feng



www.entrecieloytierra.com gunean gaian sakon dezakezu

Shui mundua oso garrantzitsua dela. Bizi garen edo erabiltzen dugun eremua gure gorputza bezain garrantzitsua da: Ondo jan eta zainduta ere, bizi garen lekua desordenatuta badago, energia txarra badauka edota geo-magnetikoki onuragarria ez den leku batean baldin badago, gure energiaren parte bat galtzen da eta eremuak ez du erraztuko egiten duzuna.
—Modan ei dago azkenaldian.
—Garrantzia hartu du. Mendebaldean,

espazio bat zertarako erabiltzera goazen, horren arabera antolatzen dugu; baina ez dago sistematizatuta, txinatarrek egin zuten hori. Lotuta daude pertsonen osasuna eta erabiltzen dugun espazioa edo bizi garen eremua: norbaiten etxea edo etxeko planoa ikusteagaz gauza asko dakizkit pertsona hari buruz eta ohar-tzen naiz zer hutsune hobe litezkeen. Feng Shui teknika duela 5.000 urtekoa da, ez da edozer gauza. o

492 etxe Erandiogoikoan

Aparkalekuak eta **pilotalekua** ere egingo dituzte **auzoaren** erdigunetik **Kateara**



Asuatik etorrira errepidearen eskubira eraikiko dituzte etxeak

Datorren urtean hasi gura dute ehunka etxebizitza eraikitzen Erandiogoikoan. Udalak iragarri duenez, 492 etxe egingo dute auzoko erdigunearen eta Kateako biribilgunearen arteko 125.000 metro koadroko eremuan.
Etxeek hartuko dute tarte gehien: 58.000 metro koadro. Gainera, berdeguneak eta bestelakoak egingo dituzte. Hainbat motako etxeak izango dira, bi bizitzako etxeen (gehienez bi solairukoak) eta lau solairuko blokeen arteko tamainua izango dute. Etxebizitzetatik 320 izango dira babes ofizialekoak, eta gainontzekoak, salmenta librekoak.

Aipatu moduan, 126.000 metro koadro utziko ei dute berdeguneetarako; ehunka zuhaitz landatu gura dute. Pilotalekua ere egingo omen dute. Bestelako hornikuntza sozialak ipintzeko ere 800 metro koadro gordeko dute eta 812 autorentzako tokia prestatuko dute.
Erandiogoikoa auzoak aldaketa nabarmena jasango du eta bestelako zerbitzuen premia izango du. Bide horretan, Goikolanda eskola handitzeko asmoa daukate, 7.151 metro koadroko eremu batean. Baina lan horiek denak egin ahal izateko sei eraikin eraitsiko dituzte, Udalak jakinarazi duenez. o

MARTXOAREN 8AN HAINBAT EKIMEN
Emakumearen Nazioarteko Eguna aldarrikapenerako eguna da mundu osoan, baita Erandion ere. Emakumeen Elkarteak kontzentrazioa deitu du eguerdiko 12:00etan, Udaletxe aurrean. Jarraian manifestazioa egingo dute. Aste horretan ere mahai-ingurua egingo dute. Bestalde, Erandioko emakume gazteen sareak kontzentrazioa egingo du martxoaren 8an, arrastiko 17:30ean Altzagako metro geltokiaren aurrean; ondoren Algortara arte joango dira bizikletaz, eskualdeko kontzentrazioan parte hartzeko. Martxoaren 13an, barriz, zine-foruma egingo dute, zehazteke daukate tokia eta ordua.

MOZORRORIK ONENAK, MARTXOAN
Ohi baino beranduago datoz aurten inauteriak, baina beti bezain dibertigarri. Erandion ere badago ohitura, Altzagan eta Erandiogoikoan martxoaren lehen asteburuan ospatuko dituzte, eta Astrabuduan, bigarrenean. Makina bat ekitaldi eta jolas prestatu dute. Gazte Asanblada ere badabil bazterrak nahasten eta jaialdia egingo dute martxoaren 4an, Altzagako azoka zaharrean. Gaueko 22:00etatik aurrera izango dira jolasak eta zozketak, eta herriko DJ bik ipiniko dute musika. Jaialdirako gai aukeratu dute Euskal ohiturak. Parranda ziurtatuta dago!

SAGARDOTEGIRA BERBOTSEGAZ
Martxoaren 19a gorritz markatu beharko duzu, izan ere, Sagardotegira urteera antolatu du Berbots Erandion Euskaraz elkarteak, urtero legez. Eguerdian urtengo dira Altzagako kaitik, sagardotegian bazkaldu eta Hernanin poteoan ibiliko dira arrastian. Itzulera gauerdian ipini dute, bueltan Deustuko jaietara joateko asmoz, baina hori norberaren esku utziko dute.
Izena emateko: www.berbots.org

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak..... Kalea/zenb.....

Herria..... e-mail..... Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digitu)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

BADATOR ARATUSTEETAKO
LEHIAKETA ETA KALEJIRA!

Lotsak alde batera laga eta hasi mozorro bila! Martxoaren 5ean helduko dira aratusteak Sopelara, eta txiki zein nagusiek ekimenak izango dituzte. Zapatuan, 11:00etatik eguerdiko 14:00ak arte jolas parkea eta tailerrak izango dira frontoian. Arrastiko 19:30ean, Txan Magoaren “Txantxetan” ikuskizuna izango da Kurtzion, 3 euroren truke. Kultur Etxean bertan, 13 urtetik gorakoek mozorro jaia eta diskoteka izango dute, Gaztelekuak antolatuta. 17:00etan hasi eta 21:00ak arte luzatuko da gaztetxoan jaia. Larrabasterrak hartuko du domekan aratusteen lekukoa. Goizean atsedean hartu ostean, 17:30ean mozorro kalejira egingo da Urgitxeta plazatik Urko kiroldegiraino. Bertan mozorro lehiaketa eta Dj Xaiborregaz diskoteka izango da.

AZKUNEREN ERAKUSKETA
KURTZIO KULTUR ETXEAN

Unai Azkune algortarraren margo erakusketa hartuko du Kurtziok martxoaren 7tik 18ra. Azkunerena erakusketa ezohikoa da: ez du izenbururik eta hainbat lekutan -batik bat hondartzetan- jaso dituen materialagaz egin du. Zura, harria eta oihala dira bildumaren osagai nagusiak.

SOPELARIN ZERBITZUA
LARRABASTERRAN

Herritarrentzako arreta bulego barria zabaldu dute Larrabasterran, Gatzarriñe kaleko 2. zenbakian. Sopelarin du izena, eta bulego horretan eskaintzen diren zerbitzuak udaletxean eskaintzen diren berak izango dira. Larrabasterrako auzokideek, beraz, ez dute herrigunerarte joan beharko tramiteak egiteko. Udal informazio gunea izateaz gain, erregistro jardueragaz harremana duten agiriak tramitatuko dira: iradokizunak bete, kexak agertu, udal zergak ordaindu... Lan lizentzia eskaerak eta jarduerak tramitatzeko zerbitzua eta errolda zerbitzua ere izango du. Ordutegia 09:00etatik 13:30etara izango da.

Emakume langilearen
nazioparteko eguna ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Udalak eta Itzartu elkarteak



Sorkunek kontzertua eskainiko du martxoaren 12an

Martxoaren 8aren harira, hamaika ekimen antolatu dituzte Sopelako Udalak eta Itzartu emakumeen elkarteak. Lehenengo ekitaldia 7an izango da, Luis del Val idazle eta kazetariaren esku-tik. “La aventura del Leer” hitzaldia eskainiko du Kurtzion, arrastiko 18:30ean. Hurrengo egunean, urteroko tarta lehiaketa egongo da Nagusien Etxean, 18:00etatik aurrera.

Martxoaren 9an, 10ean eta 11n ekitaldiak izango dira Kultur Etxean. Eguaztenean arrastiko 19:00etan “La Casa de Bernarda Alba” antzerki ema-

naldia izango da. Horren ostean, Federico Garcia Lorca-ren obra honi buruzko berbaldia antolatu dute. Hurrengo egunean, Itzartuk antolatzen duen olerki, pintura eta ipuin laburren sari banaketa izango da. Barikuan, “¿Por que somos como somos?” konferentzia-ren txanda helduko da, 18:30ean.

Martxoaren 12a izango da ospakizunen egun nagusia. Eguerdian herri-bazkaria izango da Itzarturen egoitzan, eta gauean, Udalak antolatuta, Sorkunen kontzertua egongo da Kurtzion, gaueko 21:00etan, 6 euroren truke. o

Ainhoa Juaniz > Zirika Zirkus antzerki taldeko kidea

“Gure ikuskizunetan pertsonaia gaiztoaren papera alboratzen dugu beti”



Haurrentzako izan arren, helduek ere goza dezakete “Ilargian” ikuskizunagaz

Loretzu Traketsuk, Bolintxe Zalapartak eta Krispeta Motoretak kolorez eta “maitasun piiiiaa batez” beteko dute Kurtzio martxoaren 4an, 20:00etan. Zirika Zirkus antzerki taldeko protagonistek “Ilargian” ikuskizuna aurkeztuko dute, txiki eta ez hain txikien artean barre algarak sortzeko asmoz. —Zer ikus daiteke “Ilargian” ikuskizunean?

—Bolintxe Zalapartak ilargiari lore-sorta bat oparitu gura dio, baina bera oso despistatua denez, Krispeta eta Loretzu bere bila doaz bidaian laguntzeko. Ikuskizunean ikusten dena bidaia hori da, Krispeta eta Loretxuren arteko harremana. Hau dena akrobazien bidez egiten dugu.

—Antzerkia eta zirkua elkartu dituzue? —Bai, Zirika Zirkusen egiten dugun guztia antzerki-zirkua da. Apur bat denetarik. Bolintxe, esaterako, oreka-pilota baten gainean ibiltzen da, hori da bere ibilgailua. Bidaian elementu ezberdina-

kaz agertzen gara: orekazkoak, salto egitekoak; akrobazia ugari egiten dugu. Publikoagaz ere interaktibitatea bilatzen dugu. —Zein motatako baloreak sustatzen dituzue ikuskizunean?

—Errespetua lantzen dugu, haurrak ondo pasatzea. Ikuskizunetan pertsonaia gaiztoaren papera alboratzen dugu; ez zaigu hori gustatzen, pertsonaia bihurriak baino ez dira agertzen. Pertsonaien artean lehiakortasunik ez egotea ere bila-

«Zirika Zirkusen
egiten dugun guztia
antzerki-zirkua da»

tzen dugu, baldin badago beti jokoaren bidez.

—Ikuskizunak helduoi ere balio digu barruan dugun haurra kanporatzeko?

—Ikuskizuna bukatu ostean heldu lar-etorri dira guregana esatera: “Ba zen garaia haurrentzako, baina guretzako egin-da dagoen ikuskizuna ikusteko!”. o



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Aleman

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

HAPOREN INKESTAREN
EMAITZAK, KALEAN

Abenduan Hirigintza Antolamendurako Plangintza Orokorraren (HAPO) inguruko galdetegia herritarren artean banatu zuen Berango Eraikitzen Herri Plataformak. Uzta jaso eta gero, -100 familia baino gehiagok erantzun dute-, plataformako kideek emaitzak plazaratu dituzte. Jakinarazi dituzten datuen arabera, “herritarren %81,48-k uste du Udalak ez duela herritarren artean partehartzea sustatu” HAPO onartzeko orduan. Euren iritzia kontuan hartu dela galdetzean, %3k eman du baiezkua. HAPOren edukiei buruz galdetuta, “gehiengoa (%70,73) bere edukien aurka agertu da, eta modu positiboan %7,32-k bakarrik baloratzen du”. 2.321 etxebizitza eraikitzeak 3,1-eko batzbestekoa jaso du, 1etik 10erako eskalan. Plataformaren ustez, inkestak argi utzi du “Udala eta herritarren artean urruntasun nabarmena dagoela, eta berangoztarren gehiengoa HAPOren aurka dagoela”.

JUAN RAMON VILLANUEVA
MEDIKUA ZENDU DA

Otsailaren 9an Juan Ramon Villanueva osasun-zentroko familia-medikua eta EAJko zinegotzia zendu zen, gaixotasun larri baten ondorioz. Villanueva oso ezaguna zen herrian: 12 urte baino gehiago ibili zen osasun-zentroan beharrean. Nagusien etxean doako berbaldiak eskaini zituen, eta Saharan ere hainbat behar egin zituen.

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net

Illeta kalea 1 • ALGORTA

Martxoaren 8a, astebetez

Antzerkia, hitzaldiak, zine-foruma, kontzertua, herri-bazkaria eta ibilaldia antolatu dituzte



Karmele Jaioen berbaldia izango da martxoaren 9an, Berangoetan.

Martxoaren 14ra arte iraungo dute Berangon emakume langilearen nazio-arteko egunaren ospakizunek. Urtero lez, martxoaren 8an bertan an-tzerki emanaldia antolatu dute. “El feeling es así” izenburua duen obra 19:00etan hasiko da, Santa Anako Berango Antzoki barrian. Hurrengo egunean, Karmele Jaio idazleak berbaldia eskainiko du Berangoetan, 18:30ean. “Las manos de mi madre” bere liburua izango du hizpide.

Hilaren 10ean zine-forumaren txanda helduko da, “El círculo” pelikularen

eskutik, eta martxoaren 11n, barriz, arpa eta biola kontzertua eskainiko dute Cristina Sanchezek eta Amaia Reyk, eskoletan. Martxoaren 12an izango da ekitaldi nagusia: emakumeen II. herri bazkaria. Pilotalekuan izango da, eta horren ostean, dantzagarriak izango dira herritar guztientzako. Hurrengo egunean indarragaz jarraitzen duenak herrian ibilaldia egiteko aukera izango du, Emakumeen elkartearen eskutik. Amaitzeko, adikzio ez toxikoen inguruko berbaldia egongo da martxoaren 14an Berangoetan, 18:30ean. ○

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

[mankomunitatea]

Izarra Elortegi eta Antton Goikoetxea > Ekogune

“Eskualdeko kotxe kopurua jaistea da ‘Car-sharing’ sistemaren xedea”

Bizimetaren antzeko zerbitzua izango du ‘Car-sharing’ kotxeak alokatzeko zerbitzuak

Kotxeak alokatzeko sistema barria abian jarriko du Mankomunitatearen Ekogune bulegoak. ‘Car-sharing’-a Suitzan 80. hamarkadan sortu zen, eta geroztik Europako eta Ameriketako 600 hiri baino gehiagotara hedatu da. Uda aldean, Uribe Kostara helduko zaigu. —Zelan funtzionatzen du ‘Car-sharing’ sistemak?

—Bizimetaren antzeko sistema izango da: eskualdeko 3 edo 4 herritan puntuak egongo dira kotxea hartzeko, eta bizikleten zerbitzuagaz ez bezala, erabili eta gero, leku berean laga beharko da. Aurretik, erreserba egin beharko da Internet edo telefonoz, zenbat ordutarako beharko den kalkulaturik. Zazpi kotxe egongo dira, horietatik, bost hibrido. —Zerbitzuak zenbateko kostua izango du?

—Kotxea erabiltzeko, hasieran bazkide txartela atara beharko da, 30 euroko

kostuagaz. Kilometro bakoitzeko 30 bat zentimo ordaindu beharko da; eta ordu-ro, 4 bat euro. Kotxea hartzeko ez da beharrezkoa izango Uribe Kostakoa izatea, eta ez du denboraerperik izango.

«Uribe Kostan jendeak kontzientzia ekologiko handia du»

—Nori zuzenduta dago batik bat? —Urtean 15.000 kilometro baino gutxiago egiten dutenentzat da, ez egunero kotxea hartzen dutenentzat. Helburua, azken batean, autoen kopurua murriztea da. Familia askotan kotxe ugari egoten dira eta horietatik batzuk asteburutan baino ez dira erabiltzen, horrek dakarren kostuagaz: aseguruak, mantentze-lanak... Hasieran ez da erraza horrelako sistema batera ohitzea, baina Uribe Kostan jendeak kontzientzia ekologiko handia du. ○

OINUTSIK

KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4

48600 Sopelana

Tf. 94 404 74 20

CITA PREVIA

oinutsik@euskaltel.net

OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

OSTA BIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina

ALGORTA

94 430 76 96

OPARIAK MODA GAZTEA

Torre 2

48990 ALGORTA

94 491 12 71

iratialgorta@gmail.com

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO

Neguriko Etorbidea 9

T: 491 14 87

48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURIMENDI

Aingeruaren etorb. 4B

(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87

48990 GETXO

Uribe fm

107.8

Gorliz Irratio

22 UK

UK 23

HERRI-BAZKARIA INOLA
EMAKUME ELKARTEAGAZ

Emakume langilearen nazioarteko egunak hainbat ekitaldiz beteko du Urduliz. Martxoaren 5a izango da ospakizunen egun nagusia. Egun horretan emakumeentzako herri-bazkaria antolatu du Inola elkarteak. Horren ostean, hitzaldia egongo da “Mujeres del Mundo-Babel” elkartearen eskutik, arrastiko 19:30ean. Bestalde, martxoaren 11n “El patio de mi carcel” pelikula eskainiko dute Kultur Etxean, 19:00etan.

III. TOSTADA TXAPELKETA
GORLIZKO INAUTERIETAN

Hamaika ekimen antolatu dituzte Gorlizen aratusteei ondo etorria egiteko. Martxoaren 2an izango da aurreneko ekitaldia. Fredi Paiak Uribe Kostako inauteriei buruzko hitzaldia eskainiko du Erakusketa aretoan, 20:00etan. Martxoaren 5ean, Tximeleta fanfarreak herriko kaleak alaituko ditu, eta horren ostean txokolatada izango da. Hurrengo egunean, III. Tostada Txapelketa antolatu dute Iberrebarrin, eta astelehenean, dantzaldia egongo da Dj Xaiborregaz.

“TUPPER SEX GAZTEA”,
MARTXOAREN 19AN

Oraindino ez dakizu zer den “tupper-sex” fenomeno? Martxoaren 19an gertutik ezagutzeko aukera izango duzu, Plentziako Gazte Informazio Bulegoan, Goñi Portalen. Saioa 18:30ean hasiko da, 21:00ak arte, musutruk. Izena emateko epea, barriz, martxoaren 8an amaituko da.

PLENTZIA

Ttipi-ttapa, badator VII. Matrako eguna!



Plentziatik Armintzarainoko ibilbidea egindo dute Matrako Mendi taldeko kideek

Gogoko tokian, aldaparik ez! Mendizalez beteko da Plentzia martxoaren 5ean. Egun horretarako Matrako Eguna antolatu du Matrako mendi taldeak zazpigarren urtez jarraian, Joseba Sanchez *Matrako* lagun zen-duari omenaldia egiteko. Martxoaren 5ean ospatzen zuen *Matrakok* bere urtebetetzea, eta geroztik, bere koadrilak ez du hutsik egin.

Goizeko 10:30ean hasiko dira ttipi-ttapa Astondotik, txupina bota eta gero. Goiz osoan zehar ibilbidea egingo dute

kostaldean: Astondotik “gaztelutxo”-raino, itsasargia zeharkatu, Ermuako ton-torrera igo eta Armintzara helduko dira eguerdi aldean. Bertan, indabada egingo dute *Matrakoren* lagun eta senideek.

Bestalde, martxo osoan zehar “Mendiaren hilabetea” antolatu dute mendi taldeko kideek. Ohiko urteerez gain, ikusentzunezko emanaldiak eta mendiagaz lotura duten beste ekimen batzuk antolatu dituzte. ○

Ots. 28 - Mar. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Dell' Arte kale ikuskizuna.** Altzagan. Martxoak 4, 5 eta 6, 19:00etan.

PLENTZIA

► **Ipuin kontaketa.** Goñi Portalen. Martxoaren 7an, 11:30ean.

BERANGO

► **El feeling es asi. Martxoaren 8ko ekitaldien barruan.** Berango Antzokian. Martxoaren 8an, 19:00etan.

GETXO

► **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxean. Martxoaren 11n, 19:00etan.

MUSIKA

GETXO

► **Minima.** Algortako Satistegi Tabernan. Martxoaren 3an, egunean, 20:00etan. Doan.

► **Kontzertu klasikoak.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 8tik 11ra, egunero.

► **Mayor Reisman.** Romoko West Side Bar tabernan. Martxoaren 10ean, 20:00etan. Doan.

BERANGO

► **Arpa eta viola kontzertua.** Eskolan. Martxoaren 11n, 18:00etan.

SOPELANA

► **Sorkun.** Kurtzio Kultur Etxean. Martxoaren 12an, 21:00etan.

ERANDIO

► **Dantzaldia orkestragaz.** Altzagako azoka zaharrean. Martxoaren 6an, 17:30ean.

Valentziako Maduixa Teatreren *Ras!* ikuskizuneko une bat

► **Dantza**

Dantza Zirkuitua izango da Leioan martxoan

Ataraxia obraren estreinaldiagaz ekingo diote aurtengo Dantza Zirkuituari Kultur Leioako Auditoriumen. Martxoaren 27ra arte luzatuko da eta lau ikuskizun ikusi ahaliko dira. La Intrusa dantza taldeak eskainiko du aipatu lehena, Virginia Garcia eta Damian Muñozek dantzatuko dute. Martxoaren 11n *Maniatic@s* antzeztuko du Organik taldeak. Martxoaren 25ean, barriz, *En otra parte obra* eskainiko du L'explose taldeak. Hirurak hasiko dira 20:30ean eta sartzea 10 euro ordaindu behar da. Azken lana ordea, *Ras!*, bitan ikusi ahaliko da, 12:00etan eta 18:00etan, martxoaren 27an. Maduixa Teatrek eskainiko du. Oraingoan 5 euro ordaindu beharko da sartzea.

• **Non:** Kultur Leioan • **Noiz:** Martxoak 4, 11, 25 eta 27

ZINEMA

GETXO

► **Zigortzaileak.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 6an, domeka, 17:00etan. 2,10 euro.

URDULIZ

► **El patio de mi carcel. Martxoaren 8ko ekitaldien barruan.** Martxoaren 11n, 19:00etan.
► **Zigortzaileak.** Kultur Etxean. Martxoaren 12an. 18:00etan.

ERAKUSKETAK

SOPELANA

► **Espainiako multinazionalak Hego Amerikan.** Plaza Beltza Kulturgunean. Martxoaren 11 arte.
► **Aprendeñ egitasmoa.** Plaza Beltza Kulturgunean.

GETXO

► **Begoña Endemaño del Tororen argazkiak.** Algortako Kultur Etzeko erakustaretoan, martxoaren 19 arte.

LEIOA

► **Dantza Hirian. Gorka Bravo.** Kultur Leioan. Martxoaren 3tik apirilaren 3ra. Doan.

PLENTZIA

► **Munduko emakumeak argazki erakusketa. Araldik antolatuta.** Goñi Portalen. Martxoaren 15 arte.

BESTEAK

GORLIZ

► **Hitzaldia: Euskal inauteriak eta Uribe Kostakoak.** Kultur Etxean. Martxoaren 2an, 20:00etan.
► **Poesia emanaldia, Martxoak 8.** Udaletxean. Martxoaren 8an, 19:00etan.

PLENTZIA

► **Hitzaldia: “Atez ate zabor bilketa sistema”.** Kandelaria Kultur Elkarteak antolatuta. Goñi Portalen. Martxoaren 5ean, 12:00etan.

SOPELANA

► **II. Open Uribe Kosta, martxoaren 8ko ekitaldien barruan.** Arriatera hondartzan, martxoaren 6an. Hainbat ekimen beste herrietatik: Gorliztik abiatuko da Mendi Martxa, Berangotik Txirrindularitza Martxa eta Arriatera hondartzatik Motan Bike Martxa. Guztiak batuko dira Arriateran. Open Uribe Kosta emakumeen surf txapelketa egingo da asteburu osoan zehar, martxoaren 5ean eta 6an.

URDULIZ

► **Hitzaldia martxoaren 8ko ekitaldien barruan.** Martxoaren 5ean, 19:30ean.

ERANDIO

► **Jorge Blanco Memoriala Herri Krosa.** Altzaga auzoan. Martxoaren 6an, goizez.

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz

**ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA


[albuma]



Kontrolpean seguru

Teknologia barriak, aro digitala... Gailu elektronikoak gure bizimoduaren parte dira, ez ote jabe ere? Azkar baino azkarrago sartu dira gurean eta ohikoak dira gure begietara, ohitu gara zaintza kamerak ere gure artean edukitzera: banketxean, metroan e.a. Baina ohartu baino askoz leku gehiagotan topatu ditugu kamerak, hona hemen adibide batzuk, zer pentsatu ematen dute, ezta?

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

Ventura hotela

oturuntza handien gune

1893. urteko uztailaren 28an inauguratu zuten 'Zubi esekia', metalezko egiturazko lehen transbordadore-zubia, hiru urteko obren ostean. Bizkaia Zubiaren inaugurazio egunetan hainbat ekitaldi izan ziren. Besteak beste, meza egin zuten zubiaren ontzitzoan eta Algortako Bariko San Nikolas elizako abadeak obra barria bedeinkatu zuen. Baina zalanza barik, garaiko kronikek dioten lez, Areetako Ventura hotelean egindako oturuntza handia izan zen inaugurazioaren ekitaldi nagusia. Bertan izan ziren garaiko agintari nagusiak. 1936. urtetik aurrera, baina, Ventura hotelak bankete gutxirako tartea izan zuen, bai Bizkaiko Zubia bai hotela bera bonbardatu zituztelako.

[berbetan]

Emakumearen, antzerkigilearen eta iraultzailearen ikuspuntutik egin digu berba Arantxa lurrek (Bilbao, 1964). “*La mujer en las arte escenicas en Euskadi. Siglo XX. teatro*” liburua idatzi barri du, euskal emakumeek antzerkigintzari egindako ekarpena ikusgarri egiteko. Esfortzuaren kulturaren aldekoa da eta nabarmena da hori bere bizitza erritmoan; ikerlari, sortzaile eta aktore lana, Getxoko Antzerki Eskola zuzentzeagaz uztartu behar izan du azken 10 urteotan. Nekeak ez du gelditzen, ogibidea pasio duen more koloreko iraultzailea.

Arantxa Lurre

Morez tindatutako antzerki iraultza

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Hainbat proiektutan zaude eta denbora soberan ez duzun emakumea zara. Zergatik animatu zinen ikerketa eta liburuaren egitasmoan murgiltzera?

—Emakume bezala, gizonezkoen eta emakumezkoen jakintzak daudela uste dut. Horiek batuz gero, jakintza unibertsala osatuko dugu, jendartearentzat onuragarria izango dena. Baina emakumezkoen jakintza ikusezina egin dute, ez dago liburuetan eta existitzen denik ere ez daki-gu. Beste emakume batzuei eskubide berdintasunaren alde egitea eta bozka eskubidea lortzea egokitu zaien bezala, nire belaunaldiari, niri, aurrekoen lana ikusgarri egitea egokitu zaigu. Emakume bezala erreferenteak behar ditut, gizonezkoenak ditudan bezala; behar dut jakin nire generoak borrokatu zuela. Liburua idatzi arte ez dut jakin Catalina Eleicegui lehenengo euskal antzerkigilea izan zela edo Dolores Aguirre zuzendaria izan zela 1939an eta biak antzerki munduan borrokatu behar izan zutela, gaizki ikusiak baitzeuden. Beraien esan zuten: “Lanbide hau maite dut eta horren alde borrokatuko dut”. Hori

oso garrantzitsua da niretzat. Horregatik hasi nintzen ikerketagaz, emakume horiek pertsona moduan ezagutzeko beharra sentitu nuen. Antzerkiaren Historia irakasten dut eta ez ditut emakumezko antzerkigileak lantzen; hori mundu mailako arazoa da. Historia liburuetan, ez dituzu emakumeak aurkituko.

—Liburua osatzean, zer aurkitu duzu bidean?

—Onartu behar dut amorrua sentitu dudala; batzuetan mina ere bai. Euskal An-

“Gizonezko eta emakumezkoen jakintzak batu eta jakintza unibertsala sortzen laguntzea da nire helburua”

tzerkia guztion artean egin dugu, baina liburuetara jotzean ez dituzu emakumeen izenak aurkituko. Argazki oinetan, gizonen izenak aurkitzen dira soilik, emakumezkoak aipatu ere ez dira egiten. Hori joan den mendeko liburuetan aurkitzea... baina XX. mendeko liburuak begiratu ditut eta horietan ere ez dira emakumeak agertzen. Horrek ematen dit amo-

rrua, bidegabekia iruditzen zait. Barne-begiradazko liburua izan da; maila pertsonalean asko lagundu nau. Mina eman dit emakumezkoak aipatu ere ez direla egiten ikustea. XX. mendeko autoreak horretan zehatzak ez izatea sinestezina iruditzen zait. Zaila izan da datuak lortzea; oso sakabanatuta daude. Batzuetan 2-3 aste behar izan ditut egile baten jaioterria aurkitzeko. Toribio Alzagari buruz informazio morderoa eta ponpoxoa aurkitu eta lan berdina egin zuen Maria Doloresi ez zaio

inolako garrantzirik eman. Bide zaila izan da. Egile baten datuak lortu ditudan baikoitzean, ospakizuna izan da niretzat. Bestalde, oso polita ere izan da. Goi mailako emakumezko antzerkigileak izan ditugu; polita da Toribio Alzaga Catalina Eleicegui euskarazko antzerkigintzan onena zela esaten ikustea.

—Bidean aurkitu dituzun emakumezko



aktore edo zuzendariak zelan hartu dute zure lana?

—Oso ondo; interesa erakutsi dute. Gomendioak eman dizkide: “Hori egin edo garatu gehiago bestea”. Badakit behar handia dagoela oraindik egiteko eta ni horregaz jarraitzen saiatuko naiz. Lan sakonagoa behar da: elkarriketak, emakume bakoitzaren azterketa sakonagoa, 1975. urtetik aurreragokoen beharra e.a. Baina, liburu ezberdina egin gura nuen; 2000. urtetik aurrera egon garenen lanean sakontzeko lehenengo gure historia bildu behar nuen, ez baikenekan historiarik. Gure ibilbidea txikiagoa izan da 2000. urtera arte; emakumezko antzerkigileak gehiago sortu dugu XXI. mendean, arrakasta handiagoa izan dugu. Baina, kontuan izan behar dugu, 1900. urtetik Franco hil arte zentsura handia egon zela, antzerkia oso zigortua egon zen. Hala ere, egon zen gutxi hori biltzeko beharra ikusten nuen.

—**Zuk, emakumezko aktore eta zuzendari moduan, sexu-diskriminazioa jasan duzu?**

—Ikertzen hasi aurretik ezetz uste nuen. Antzerki mundua nahiko liberala da eta horregatik pentsatzen nuen ez dela diskriminaziorik ematen. Gertatutakoak zure talentuagatik justifikatzen dituzu; emakumeok asko eskatzen diogu gure buruari eta gure burua gutxiestera jotzen dugu: “Ez dut gaitasun nahiko erakutsi eta horregatik ez naute hartu”. Gainera, gizonezkoakaz batera bizi izan gara beti eta ez dugu sekula beraien figura zalantzan jarri. Baina, aztertzen jarriz gero ikusten dugu baietz: matxismo ikaragarria dago antzerkigintzan, gizonezkoen zein emakumezkoen aldetik. Botere guneetan gizonezkoak dau-de; antzerkian ere bai. Hori guztia ikustekak, min handia eman dit. Normalizat n-tuen jarrerak bidegabeak direla ikusi dut. Batzuetan, nahiz eta zuzendari moduan lan bat sinatu, gizonezko bategaz bazaude, berarengana zuzentzen dira zuzendari moduan. Gizona aktorea izanda ere, beti esango diote zuzendaria dela, zu zuzendaria

zarela argi esan baduzu ere. Lehen paso egiten nuen; baina orain, argi esaten dut: ni zuzendaria naizela esan badizut, zergatik uste duzu gizon bat dagoelako bera zuzendaria dela? Ez dauka zentzurik. Hori gizonetzko zein emakumezkoek egiten dute. —**Liburua alde batera utzita, Getxoko Antzerki Eskolan egindako lanari helduko diogu. Aktore guztiek ez dute pedago-**

giaren bidea aukeratzen. Zerk eroan zintuen eskolara?

—Egia esan, zoriz heldu nintzen. Eskolan ikasle sartu eta gutxira, eskolak ematea proposatu zidaten. Horretan gozatzen nuela ikusi nuen. Jende gazteagaz egoteak egunerokoagaz lotzen gaitu eta hori eskertzen dut. Jende gazteari antzerkiak duen garrantzia erakustea gustatzen zait. Baina onartu behar dut zoriak ekarri ninduela hona; nik sekula ez nuke aukeratuko irakasle izatea, aktore lana gustuko dut. —**Sorreratik ezagutzen duzu eskola. Zertan ikusi duzu aldaketa handiena?** —Getxoko Eskola garaikidea izan dela uste dut; garaia-gaz batera aldatu gara. Horretaz, harro nago. Ideologikoki txarrera egin du, gizarteak txarrera egin duen maila berean. Jendarte bezala aldatu da: sakona

“Eskolara etortzen den gazteak arrakasta arin lortzea bilatzen du; ez dago esfortzuaren kulturarik”

izatetik azalekoa izatera pasa da. Etortzen diren gazteek arrakasta arin lortzea bilatzen dute, ez dago esfortzuaren kulturarik. Ezinezkoa da, edozein artetan, esfortzu eta konpromiso barik zerbait lortzea. Kalitate eta inplikazio gutxiago dago. Hori asko nabaritzen da eskolan. Irakasle on borroka gogorragoa da, muga gehiago jartzen ibili

behar gara, adiago; gutxiago gozatzen dugu. Azalekoaren aldeko joera hori normala da, beraien inguruan hori bizi dutela kontuan hartzen bada. Hona heltzen direnean lehen baino gehiago gelditu behar ditugu; gelditu eta esan: “Ez, hau ez da horrela eta beste era batera egin behar duzue”. —**Aktore izatera eramaten dituen ilusioa aldatu dela esan nahi duzu...**

—Bai. Guretzat aktore izatea oso garrantzitsua zen. Orain garrantzitsua da erosketak egitea edo dantzalekura joatea den maila berean. Azalekotasun eta arrakasta azkarrerako joera agertzen da barriz ere. Hona heltzean horretaz guztiaz desintoxikatu behar ditugu; gu heztera gatoz, ez desintoxikatzen. Baina azalekotasun horregaz ezinezkoa da sortzen hastera. Niri pena ematen didate; gu zoriontsuagoak ginen. Ilusio handiagoa geneukan, pasio gehiago; egiten genuen edozein gauza betetzen gintuen. Beraiek aldiz ez dira ezezagaz betetzen. Eskolan eutsi egiten dutenak, gozatu egiten dute eta guk erakutsi nahi izan diegun errealitatea ikusten dute. Lehen, bokaziodun jende gehiago zegoen. —**Elkarriketa batean esaten zenuen “gure gizartean ez dela antzerkiaren**

ten, jendarte balduta dago. Guk eszenatorkira begiratu eta zer gertatzen den ikusten dugu; orduan, pentsatzen hasten gara: “Begira zer gertatzen den, nik hori gura dut edo ez...”. Oso garrantzitsua da artistaren beharra, sistema zalantzan jarri eta eszenatoki gainera eramaten saiatzen delako. Hori da, hain zuzen ere, gaur egun existitzen ez den morala eta etika. Botereak bilatzen du

“Artistok jendartearen baloreak zalantzan jartzen ditugu; inork ez badu hori egiten balduta gaude”

ez existitzea. Aktoreak aisiarako eta denbora-pasarako behar egitea gura dute, azalekora mugatzea. Oso neurtua dago hori guztia; ez da nahi barik gertatzen. Arriskutsuak gara. Artistok baloreak transmititzen ditugu eta garrantzitsuak gara sendatuko gaituzten medikuak garrantzitsuak diren modu berean. Bakoitzak funtzio bat betetzen du; gureari garrantzia kentzen diote, aisiagaz lotuz. Zergatik gara aisia? Barre egin gura dugulako soilik? Ez. Ez dutelako gura zalantzan jartzea krisia aberatsek sortu dutela eta primeran bizitzen jarraitzen dutela. Egun osoa negarrez ematea gurago dute, errudunak nortzuk diren esatea baino. Egipton gertatu den bezala egingo bagenu eta esan...aski da! Uste baino botere gehiago daukagu.

—**“Sortzaileengan sinetsi beharrean programatzaileengan sinesten” dela ere esan duzu. Zelan bizi duzu hori?**

—Aspertuta nago gai horregaz. Liburuagaz bezala gertatzen zait. Zuk ezagutu duzu noizbait matxista dela esaten duenik? Badaude zenbait jarrera inork ez dituenak bereganatzen. Mundua alderantziz dago eta horrela onartzen bultzatzen gaituzte. Nik

ez dut hori onartuko. Programazioa, beraiek egiten dutenez, publikoa antzokietara ez hurbiltzea lortzen ari dira. Zein da horren erruduna? Egiten ari dena, noski. Zeintzuk izango gara errudunak, lanak sortzen ari garen antzerkigileak? Ez, nahiz eta hori pentsarazi gura diguten. Txarto urtetan ari bada, gauzak dagokien lekuan ez daudelako da. Sortzaileok protagonista izan behar dugu. Baina programatzaileek esaten digute: “Guk boterea daukagu eta nik aukeratuko zaitut”. Nire ustez, aukeratu behar duen bakarra ikuslea da. Hori horrela ez den bitartean, denak txarto jarraituko du. Emaizta txarrak jasotzen badituzte ere ez dute jarrera aldatzen, boterean egon eta errua beste batzuei bota gurago dutelako. Egoera jasangaitza denean, gure txanda eta

ikusleena izango da. Edonork izan behar du eszenatorkira igotzeko aukera eta ikusleek izan behar dute lana ona edo txarra den esan behar dutenak. Programatzailea bitartekaria izango da, besterik ez.

—**Zelan ikusten duzu euskal antzerkia?**

—Sartzen ari diren gazteak akabatzen ari dira; ez diete inongo aukerarik ematen. Hala ere, sortzaile onak daude Euskadin. Emakumeek gidatzen dute euskal antzerkigintza momentu honetan; agian bihar aldatuko da, baina egun eurak gidatzen dute. Ideia onak daude eta genero ezberdinak lantzen dira: antzerki komertziala, abangoardiakoa... garrantzitsua da denetarik egotea. Baina, publikoa ez da horretaz ohar-tzen ari. Horrek nekatu egiten gaitu eta sortzaileak joaten dira.

—**Zergatik ez zaio publikoari heltzen?**

—Martxan gauden sortzaile barrientzat, betikoak ez garenentzat, ez dago urtenbiderik: enpresa izatera behartzen gaituzte, ez digute diru-laguntzarik ematen, programadoreek ez dute gure lana onartzen... horrek Madrilera alde egitera eramaten du jendea. Programatzaileek ez dute beraien herrian dagoena ezagutzen. Gainera, uste dute sortzaileak ezin garela erratu eta hori ez da horrela. Kale egiten utzi behar digute; publikoak esango digu zer hobetu behar dugun. Baina, programatzaileek programatzen ez gaituztenez, ez gara publikoaren-gana heltzen. ○

Dordoka: sortu, ikertu, irauli

—**Zertan zabilta orain?**

—Etapa barri batean sartu naiz, lagun batzuek az bera. Eskola bere kabuz doa aurrera. Horregatik, egitasmo barri bat sortu dugu: Dordoka. Antzerkigintza-ren inguruko ikerketa eta argitalpenak bultzatu gura ditugu. Arlo ezberdinetako sortzaileak batu gara ametsak bete eta gure herriko antzerki sorkuntzari buruz ikertzeko. Ilusio handiz hartu dugu pro-

iektua. Urratsez urrats eta elkarregaz egingo dugu aurrera. Batzen gaituena hasieran aipatu dudan jakintza unibertsalerako bidea da. Berdintasunari buruzko ikerketak egiten dira, baina ez da diziplina bera eta antzerkiaren historia aldatzen. Emakumeak ikusgarri egin, gizonetzkoen jakintzagaz batu eta gizon zein emakumeek eraikitako historia plazaratu gura dugu. Bestea ez da erreala, ez da

logikoa. Horrek mugitzen gaitu elkarregaz sortzen. Patxadaz hartu eta diskurtso teorikoa osatu gura dugu, gozatuz eta bizitzen ari garen zentzugabekeria honetatik at. Aski da esan eta kalera urten gura dugu, jendeari erakusteko ezin direla zanpatzen dituen korrante horretan gelditu. Mezua bidaltzeko dugun biderik zuzenena, antzerki lanak sortzea da eta horretan ere jarraituko dugu.



Industriaren hondarrak

Bertan behera utzitako eraikinen argazkiak ekarri dizkigute ale honetara
Igor Mercado leioaztarrak eta Andoni Fernandez bilbotarrak.
Argazkigintzan *amateur* lez egiten dute behar biek ala biek. Bilduma honetako irudiak
Sestaoko hainbat fabrikatakoak dira, eta bertan industriak izan zuen
loraldiaren arrastoak ikus daitezke. Benetako 'industriaren hilerriak' aurki daitezke
Sestaon: burdinezko eskeletoak, hautsez beteriko gune grisak, iraganaren lekuko isilak...

Argazkiak: **Igor Mercado eta Andoni Fernandez**











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARKO



GIZONENTZAKO
MODA

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Ezin ahazten utzi

Bizkaian bonbardaketaren ondorioak jasoko ditu **dokumental** batek



Bonbardaketaren ondorioak Aretan

Gernika-Bizkaia 1937-2012. 75 urte gogoan egitasmoagaz oroitu gura dituzte Guda Zibileko bonbardaketek Bizkaian utzitako ondorioak, horretarako, dokumentala egingo dute. Gernika eta Durangokoak dira larrienak eta ezagunenak, baina herrialdeko beste 31 herrik sofitu zituzten aire-erasoak, tartean Erandio, Getxo, Leioa edota Berango; dozenaka pertsona hil eta zauritu zituzten. Herrietako lekukotzak bilduko dituzte. Egoitz Rogriguezek zuzenduko du dokumentala, eta Bizkaiko Aldundiak sustatu.

Helburu dute belaunaldien arteko topagune bat izatea eta bizirik manten-

tzea Bizkaiko memoria historikoa: “*Oroimen Historikoa berreskuratzea eta belaunaldi berriei helaraztea da asmoa, gertakari larri haien 75. urteurrena erreferente hartuta*”. Horretarako aire-erasoak pairatu zituzten herrietako gazteek bideoak egingo dituzte, Guda Zibileko gertakarien oraingo ikuskera batuz, izan ere, “*lehenengo belaunaldiak gerta-*

Erandio, Getxo, Leioa eta Berangok ere pairatu zituzten aire-erasoak

erak bizi izan zituen, bigarrenak ezkutatze ahalegina egin zuen, eta azken belaunaldiak, gaurkoak, gertakari horiek berreskuratze eta gogoratze aukera izango du, gertakari horiei buruz duen ikuspegia erakutsiz eta adieraziz”.

Bideoak bilduz osatuko dute dokumentala, collage moduko bat eginez. Ekoizleek bideokamerak utziko dizkiete egitasmoan parte hartuko duten gazteei, beren herriko grabazioak egin ditzaten eta “*ikus-entzunezkoen lengoaiatik bere sormeneko ekarpena egin dezaten*”.

Bideo guztiak batu eta landu ostean, azken emaitza erakutsi gura dute 2012ko apirilaren 26an, hau da, Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrenean. ○

Berri Txarrak Ameriketara

Brasil, Argentina, Txile, Mexiko eta Kanada bisitatuko ditu hil honetan talde nafarrak



Rise Against taldeagaz emango ditu kontzertuetatik hiru

Amerika aurkitu omen zuen Kolonek duela 500 urtetik gora, nonbait galdu baldin bazen. Orduetik euskaldun askok egin du kontinente urrunera salto, arrazoi bat edo beste medio. Berri Txarrak musika talde nafarrak ere hartu du tarte eta hara abiatu da bere musika ezagutzera emateko asmoz. Martxoaren 10era arte luzatuko da Amerika Tour 2011.

Otsailaren 18tik ibili dira Brasilen gora eta behera, sei kontzertu eman dute herrialdean. Eguntan Argentinan dabil-tza, ordea, Buenos Airesen. Brasilgo eta Argentinako kontzertu hauetatik hiritan

jo dute Rise Against AEBtako taldeagaz batera.

Handik Txilera abiatuko dira martxoaren 3an eta hiru kontzertu eskainiko dituzte. Mexiko DF ere bisitatuko dute martxoaren 8an, Kanadara joan aurretik; izan ere, Toronton amaituko dute bira, martxoaren 10ean, Canadian Music Fest 2011 jaialdian.

Herrialde horietako batean bazaude, agian kontzertura hurbiltzea daukazu, gainontzekoek barriz, interneteko jarraipenagaz konformatu beharko. ○

www.berritxarrak.net

EHZ jaialdia > lehen taldeak

IAM Marsellako rap taldeak, Tiken Jah Fakoly bolikostarrak eta Ken Zazpi talde gernikarrak joko dute Heletako zelaian datorren uztailaren 1,2 eta 3an, Euskal Herria Zuzenean jaialdian. Bada, giroa berotzen hasiak dira, izan ere eta hilabete asko tarteko, dagoeneko iragarri dituzte hiru musika taldeok eta sarrerak saltzen hasi dira: hiru egunetarako bo- noa erosteko eskaintza berezia plazaratu dute. Aurten 16 urte betetzera doa, eta ohiko legez, antzerkia, dantza, ikus- kizunak eta giro jatorra ez dira faltako musikagaz batera. Herri-egitasmoa da eta herriarentzat, kontsumo markoetatik at, ehunka laguntzaile ditu, gure herria zer den erakutsi gura du EHZA.

info+: www.ehz-festibala.com

getxo-jazz > irabazleen diskoa

Wierba & Schmidt Quintet Poloniako taldeak irabazi zuen iaz Getxoko Nazioarteko Jazzaldiko lehiaketa. Epaimahaia eta entzulegoa bat etorri ziren erabakian. Getxoko entzule adituek sentitu zuten energia guztia antzeman daiteke diskoan. Irabaztera heldu ziren Getxora eta lan barrian nabaritu duzu. Katowiceko Musika Akademian ikasi zuten musika poloniarrek. Piotr Schmidt eta Michal Wierba dira taldearen bihotza. Lehena tronpetak-jotzailea da eta saria eman zioten Getxon bakarlari onenari. Michal Wierba, barriz, taldeko piano-jotzailea da, disko honetako hiru obra egin du. Grabazioa digipack euskarrian argitaratu dute.

diskoa erosteko: www.hotsak.com

diskoak

Azulejo frio
Txarrena
Maldito Records



Barriro hemen dira Txarrena lruñeko taldeko lagunak, 19 urteren ostean. Barricada taldeko buru El Drogasek sortu zuen rock taldea 80ko urteen amaieran arnas apur bat hartzeko asmoz. 1992an kaleratu zuten izen bereko diskoa eta 43.000 kopia saldu zuten. Orain urtebete jotzeari ekin zioten barriro eta disko barria da lan horren emaitza.

Back to the 40's
Yoio Cuesta
Hotsak



Bere izenagaz lehen diskoa du Yoio Cuesta kantariak. Jazzaren eta bluesaren hastapenei heldu die, esklaboek bizitzari lotutako doinu afro-amerikarrak berreskuratuz, baina baladak alboratu barik, horiek oso hurbil baitaude bluesaren eta beltzen musikatik. Horregatik ere gitarra da protagonista, eta ez pianoa.

Kaldereroak
Batzuen artean
Elkar



Donostiako Kaldereroen festa ezaguna osatzen duten errepertorioko osagaiak dauka Groseko Hungariar Kaldereroen Konpartsako diskoak. Raimundo Sarriegi, Juan Antonio Antero, J. J. Santesteban eta Jose Olaizolaren lanak interpretatu dituzte, Konpartsako kideakaz batera, Irungo Hiria Musika Banda, Aita Donostia Koroa eta Aita Sierra Koroak.

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alargoeta 8 (Euskal Herria kaleagaz bat)
Tf. 94 491 68 95
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bítxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Herbehereak konkistatzera Sei euskal idazleren ipuinak itzuli dituzte nederlandarara Emekiro liburuan

Euskal idazleak ari dira mugak apur-
tzen, oraingoan sei emakume gazteren
ipuinak itzuli dituzte nederlandera hiz-
kuntzara *Emekiro* liburuan. Eider Rodri-
guez, Jasone Osoro, Katixa Agirre, Kris-
tina Goikoetxea, Uxue Alberdi eta Kar-
mele Jaioren lanak dira; seiak 1970az ge-
roztik jaioak. Zirimir Press argitaletxea
ausartu da liburua egiten, Cristina Ri-
charte eta Henrike Olasolo dira ardura-
dunak. Azken horrek itzuli ditu ipuinak,
Peter Smaardijkegaz batera; Herbehere-
tan bizi da baina aita bizkaitarren eskutik
etxean eta Madrilgo Euskal Etxean ikasi
zuen euskaraz Olasolok. Kristina Goiko-
etxea idazlea, barriz, Herbeheretan bizi da
eta nederlandaraz ere idazten du.

Hizkuntza gutxituetan idatzitako li-
**Hizkuntza gutxituetako
lanak itzuliko ditu Zirimir
Pressek Herbehereetan**

teratur lanak nerderlandarara itzultzeko
eta zabaltzeko helburuagaz sortu dute
Zirimir Press, hain zuzen ere:
“Herbehereetan ez dago euskal komunita-
terik, ezta euskal etxerik ere, ez dute
Euskal Herria apenas ezagutzen, eta uste
dute Euskal Herria Espainiako probintzia
bat baino ez dela”.

liburuak

Veleia Afera
Alberto Barandiaran
Elkar

Iruña-Veleiako aztarnategia-
ren inguruko ikerketa lana
egin du Barandiaran kazeta-
riak. Aztarnategian egondako
arkeologoak elkarrizketak,
grafitoen benetakotasunaren
inguruko txostenak eta bes-
telako materiala bildu du,
lekukoaren zintzotasunari
uko egin barik.

Veleia Afera
Alberto Barandiaran
Elkar

Iruña-Veleiako aztarnategia-
ren inguruko ikerketa lana
egin du Barandiaran kazeta-
riak. Aztarnategian egondako
arkeologoak elkarrizketak,
grafitoen benetakotasunaren
inguruko txostenak eta bes-
telako materiala bildu du,
lekukoaren zintzotasunari
uko egin barik.



Emekiro liburuaren azala

Generoaren ikuspegia ere txertatu
gura izan dute bilduma honetan, izan ere,
“Espainiaren irudi maskulinoa oso hedatua
dago, baina azken urteetako euskal litera-
turak emakume aurpegia dauka”, horrega-
tik aukeratu dituzte sei emakume.

Askotariko gaiak jorratu dituzte idaz-
leek, nork bere estiloan. Baina argitara-
tzaileen iritziz, badute loturarik, zehazki
pertsonaien bizitzaren egiazkotasuna
zalantzan ipintzen duten momentu kutu-
nak biltzen ei dituzte.

Datozen hileetan argitaratuko dute
Laura Mintegi idazlearen, Algortako bizi-
laguna, *Sisifo maiteminez* liburua. ○

Dinosauroen garaian
Mathilde Elie
Ttartalo

Dinosauroen mundua
hobeto ezagutu gura
duenarentzako lana. Mapak,
irudi handiak, egiazkoak
baino errealagoak diren
berreraikitzeak, kontaketa
zehatzak e.a. Lurrak
ezagutzen dugun itxura ez
zeukanean zelakoa zen
ezagutzeko aukera.

Dinosauroen garaian
Mathilde Elie
Ttartalo

Dinosauroen mundua
hobeto ezagutu gura
duenarentzako lana. Mapak,
irudi handiak, egiazkoak
baino errealagoak diren
berreraikitzeak, kontaketa
zehatzak e.a. Lurrak
ezagutzen dugun itxura ez
zeukanean zelakoa zen
ezagutzeko aukera.

[kirola]

Elaia Torrontegi > Taekwondo jokalaria

“Zaila den arren, nire eskuetan dagoen guztia
jarriko dut Joko Olinpikoetan parte hartzeko”



Plentziarrak Koreako Taekwondo mundialean parte hartuko du maiatzean

Estatu mailako Taekwondo Txapelke-
taren txapela laugarrenez jantzi du Elaia
Torrontegi plentziarrak. 2007. urtean ira-
bazi zuen lehenengoz, eta geroztik txape-
lak jantzi eta jantzi ibili da Torrontegi.
Maiatzean Koreako mundialean parte
hartzeko asmoa du, ea markak hausten
jarraitzen duen!

—Lehenik eta behin, zorionak. Espero
baino hobeto joan zaizu txapelketa?

—Mila esker, gauzak ondo joan zaizkigu
oraingoan. Beno, denboraldi hasieratik
gogor ibili gara txapelketa honetarako
prestatzen, hau baitzen giltza nagusia
maiatzeko mundialerako. Baina nahiz eta
buru-belarri prestatzen ibili, horrek ez
dizu urrea ziurtatzen.

—Nazioarteko Taekwondo Federazioak
munduko jokalaririk onenen artean lau-
garren kokatu zaitu. Izen handiko taek-
wondolari bihurtu zara!

—Azken urtean gauzak ondo joaten ari
dira, egia da, nazioarteko urteerek espe-
rientzia handia ematen dute. Gure kasuan
esperientzia hori gureganatzen saiatu gara,

gero taekwondoaren munduan goienean
dauden kirolarien aurka ahalik eta beha-
rrik onena egiteko.

—Euskal Herrian taekwondoan maila
ona dagoela uste duzu?

—Euskal Herrian kirolari oso kemen-
tsuak eta gogotsuak ditugu, eta hori gure
kirolean ezinbesteko ezaugarria da.
Atzerriko talde gehiagoren aurka egitea-

**«Euskal Herrian kirolari
oso kementsuak ditugu,
eta hori ezinbestekoa da»**

ren esperientzia da gehien falta dena,
baina “lehengai” oso ona dugu.

—Txinatik bira egin ostean, Koreako
mundialera zoaz... Joko Olinpikoetara
ondoren?

—Uste dut kirolari danok dugula Joko
Olinpikoetan parte hartzeko helburu
hori. Gure kirolaren kasuan, emakumez-
koen 8 kategorietatik soilik bik parte har-
dezakete aurreolimpikoetan. Zaila den
arren, nire eskuetan dagoen guztia jarriko
dut Joko Olinpikoetan parte hartzeko. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirola
moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Ainhua Arrozpide > Gipuzkoa Zero Zabor elkarteko kidea

“Hondakinik onena da sortzen ez dena, eredu linealetik zirkularrera igaro behar da”

Gipuzkoako hainbat herritan abian da hondakinak atez ate batzeko sistema. Zero Zabor elkartekoek hitzaldia emango dute Plentzian martxoaren 5ean, Kandelaria elkarteak gonbidatuta.

—Zer lantzen du Zero Zaborrek?
—Gipuzkoa Zero Zabor Lurraldea izatea dugu helburu. Jendarteak eredu lineala bultzatzen du: natur baliabideak ustiari produktuak sortzeko eta kontsumitu ondoren bota. Zaborteak gainezka ditugu eta irtenbide bezala errauste-planta toxikoa ezarri nahi digute. Eredu zirkularrera igaro behar dugu, beharrezko baliabideak soilik hartuz eta kontsumitu ondoren, berriro zirkuitura itzuliz. Murritz, berrerabili eta birziklatu, zabor isurketa zerora hurbilduz. Ahalik eta gutxi sortu behar da, hondakinik onena da sortzen ez dena. Atez ateko bilteta urrats garrantzitsua da, baina hondakin arazoari irtenbidea emateko eredu zirkularrera iristeko norabidean urratsak eman behar ditugu.

—Atez ateko bilteta sistema, zer da?
—Bilteta sistema da. Norberak etxean banatzen ditu hondakinak. Orain arte organikoa eta errefusa batera pilatzen genuen, atez ateko sisteman bost material bereizten dugu, eta egun bakoitzean dagokiona ateratzen dugu etxeko atarira. Guk astean hirutan ateratzen dugu organikoa, bitan ontzi arinak, astean behin papera eta astean behin errefusa, hau da, birzikla ezin daitekeen materiala. Aipatu pixa oihalak, konpresak eta tanpoiak egunero ater daitezkeela. Usurbilen atez ateko bilteta aurretik errefusa %77 zen, eta egun, %17. Beraz, Gipuzkoa osoan hondakinak etxean ondo bereiziko bali-



Martxoaren 5ean izango da hitzaldia Goñi Portalen, 12:00etan

ra, organikoa bereziki, errausketa plantarik behar ez genukeen egoeran aurkituko ginateke.
—Zehazki nola funtzionatzen du?
—Kaleko edukiontzi handiak desagertzen dira, beirarena izan ezik, eta nork bere etxean dauzka 10 litroko bi ontzi hondakin organikoentzat. Klean, etxe-

“Usurbilen hondakinaren %23 gaika bereizten genuen lehen, orain %80tik gora, errauste plantari alternatiba da atez ateko bilteta”

tik gertu daude ontzi txikiak, zintzilarioak izan ohi dira. Egun bakoitzean egokitzen den materiala sartu behar da, egunero jaisten dira hondakinak. Auzokideekin adosten da zintzilarioak non kokatu: paretan zintzilik, aurreko lorategian e.a. Edukiontzi handiak desagertu eta aparkaleku gehiago dago.

Ekonomikoki ere bideragarria da. Usurbilen hondakinaren %23 gaika bereizten genuen lehen, orain %80tik gora. Datu hauek adierazten dute Gipuzkoan inposatu nahi diguten errauste-planta toxikoa ez dela beharrezkoa.
—Herri handietan posible da egitea?
—Usurbil, Hernani eta Oiartzunen

abian da, laster Antzuolan. Hernanik hautsi du topikoa Euskal Herrian: 10 solairuko eraikin handiak, sagardotegi garaian mugimendu handiko hirigune kontzentratua eta 19.000 biztanle. Baina beste toki askotan ere egiten da, adibidez, Italiako Torinon eta beste herri batzuetan, ehunka mila biztanlekoak. ○

Fredi Paia

Baratoste eta Aratoste

Herri kulturaren ikertzaileentzat zirraragarria baizen enigmatikoa dan jai edo erriturik badago, lurraren itxartze eta ur barriaren sasoiko aratoste da.

Gauza jakina da gure aitaita-amama nagusien umezaroan, eta ofizialki ia-ia Franco hil arte, aratostek edo karnebalak galarazota egon dirala. Herriaren eta auzoaren arabera, debeku horrek indar handiago edo txikerragoa euki dauan arren. Esaterako, badakigu Getxon XIX. mende amaieran aratosteak galarazota egozala. Baina halanda bere, Herriko Etxeak jorrala ordaindu eutson aldea-etxerik aldea-etxe jotzen ibili zan txistulariari. Antza danez, katamalo edo maskariterik ibilteko debekua zan zorrotzen betearazoten zana. Lekukoen esanetan, gerraostean bildur handia ei egoan maskarite jantzita egozala aprobetxatuta mendekurik egongo ete zan. Edo atxakia horrek euki eban, sikiera, eragin sozialik handiena. Gure eskualdean, Gorlizeko Uresarantze auzoan, Barrika eta Erandioko Goerrin, eta Armintzan iraun eban ohiturak indartsuen. Ez bazan bere etxe guztietan ospatzen.

Debekua eta elexaren mendeetako eraso dokumentauta badagoz bere, esan daigun ikerlari guztiak ez datozela aratosteen jatorri aurrekristauagaz bat. Caro Barojak Carnaval berbea latinezko carnes tolendas terminotik eratorria dala dino. Euskal kulturara etorrita, aratoste berbea haragi uzte berbetatik sortua leitekela dino. Ondorioz, aratostea garizumaren aurreko, okela jateari itxitearen aurreko jatordu kalorikoen jaia litzateke. Aratosteak amaitu eta hurrengo egunean hasten dan garizumaren sasoi zorrotzaren aurreko (jai, erromeri eta kontzertu danak debekatzen ziran garizuman) desinibizino egun batzuk lirateke.

Joan Antonio Urbeltzek, oster, aratostean kultura neolitikoaren zantzuak ikusten ditu. Udabarriaren hasieran, natura



bizteagaz batera, indar positivo eta negatiboak itxartzen dira. Lehenengoak potentzia eta bigarrenak konjuretako erritua litzateke aratostea, Europa osoan sasoi hone-

«Katamalo edo maskariterik ibilteko debekua zan zorrotzen betearazoten zana»

tan egiten diran oinarritzko ezaugarri komunak daukiezan dantzakaz batera. Aratoste berbea araztui berbatik eratorria litzake eta inauteri inausi berbatik letorke. Nekazal urteagaz bat datoz aratosteak eta inauter sasoia. Bestetik, mozorroa edo Barrika eta Erandion batu dogun muserangea zomorro

edo gurean mamarro diranakaz lotuta legoke. Mozorroto > zomorrotu litzake, beraz. Gure eskualdean batuak Urbeltzek hipotesia baieztatzen dau. Izan bere, muserange berbea disfraz esateko erabiltzeaz ganera, erderaz musarafa dan intsektuari esateko erabiltzen da. Urbeltzek, hamen laburtu ezin dogun Los bailes de espadas y sus simbolos: cienagas, insectos y “moros” liburuan aratosteak Europa osoan zabalduta dagoan intsektuen eta etorkizunaren iragarpenaren arteko loturaren barri emoten deusku. Bere usteen indargarri esan behar dogu Barrikako Goerrin bizirik dagoala aramua norbere aurrean gaunan behera hasten danean barri dakarrelakon dala.

Hurrengo baten jarraituko dogu eskualdean jai hau zelan ospatzen izan dan azaltzen. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezzen.



Portu Zaharra bar
Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE
Eguneko menua Jatetxea Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia
Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.
Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



UK
Taberna
Mariandresena 1, Algorta



txakoli
mota gane Tx.
txakolina
Leioa/Unbe errepidea 34 (Akarlonda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

[gaurko**aukera**]

Motagane Txakolindegia

Goierriko produktuak, txakolina eta jazza



www.txakolimotagane.com gunean ikus ditzakezu menuak

Goierriko baserritarrei erosten dizkiete lehengaiak Erandioko Motagane Txakolindegikoek, “*bezeroei bertako produktua eskaintzeko*”. Izan ere, *slow food* filosofia praktikatzen dute. Txakolina, bertako produktuak eta musika ikur, lasaitasunez eta giro ederrean bazkal daiteke Leioa-Unbe errepideko 34.ean.

Oier Kamiruaga nagusia *sumiller* ikasten dago eta taberna zabaldu zutenetik beti izan dituzte bospasei txakolin desberdin. Merkatuan desberdindu beharra dago eta afizioz egin dute aukera.

Ildo horri jarraituz, hil honetan aukera dago txakolina eta urteko ardo errioxarra dastatzeko, txakolinaren urte barria laster estreinatuko da eta.

Aipatzekoa da iaz eman zietela Bizkaiko Txakolinaren Tratu Profesionalari I. Ipar Kutxa saria, barra tabernentzako mailan. Bestalde, indaba denboraldia ere laster amaituko da. Beraz, azken asteak dituzu horiek probatzeko, berehala sartuko baitituzte soloko udabarriko uztako produktuak Motaganeko menuan.

Janari zor zaion garrantziagaz ohartuta, pintxoak, eguneko menua, menu berezia, karta eta udan garagardotegi menua ematen dute. Estalitako jantoki bi daukate, 100 lagunentzako tokiagaz.

Azkenik, hirugarren zutabea daukate musika Motaganen eta kontzertuez ere goza daiteke, lagunarteko giroan. ○

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



ARTAZA ETXEA
JATETXEA
• gosariak
• txuletoia • bakailoa
• arrain freskoa
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobelera eraikinaren aurrean • LEIOA



BASARTENA
URDULIZ
Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñu z.e. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Maria Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA

irratia 108 fm

[horoskopoa]

URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Erasmus programagaz joan eta zure lagun guztiak martxan jarri dira, orain gehienek badute etxea. Halere, pare bat alproja daude oraindino zure literak okupatzen...

AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Udabarria dator, gezurra badirudi ere. Ibilaldi luzeak egingo dituzu, loreak batu eta txoriak berba egingo duzu... Baina non demontre sartu ote da zure koadrila?

GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Tabernetan erretzea debekatu zutenetik bizitza aldatu duzu. Jende asko ezagutu eta lagun barriak egin dituzu taberna atean. Nork usteko zuen debekuak on egingo zizunik?

META

(Irailak 17 urriak 16)
Herriko ezagun batek bere maitasuna adieraziko duzu, zur eta lur lotuko zara. Zuk gogoko ez eta ez duzu onartuko. Egun batzuetara damutuko zaizu, zure lagun batek musukatzen ikustean...

OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Oraindino mozorrorik ez duzu topatu? Inauteriak hemen dira ba! Lasai egon zaitezke, azkenaldian daroazun itxura horregaz mozorro lehiaketa irabaziko duzu!

HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Asteburupasa joango zara Zuberoara, Maskarada ikustera. Bertako gazte batzuk ezagutu eta parrandan lotuko zara zu bakarrik... Nola itzuliko ote zara etxeraino astelehenean?

LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Lagun bati loteria tokatuko zaio eta Arzakenera bazkaltzera gonbidatuko zaitu. Baina diru-zorria etxean ahaztuko du eta zuk ordaindu beharko duzu, hori da pagotxa!

HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Zein ondo bizi zaren azterketarik gabe, ezta? Gainera, barikuetan jai eman dizute unibertsitatean, hau bai poza! Goza egizu orain, maiatzeko deialdia laster dator eta!

ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Otsaileko eguzkiak kalte egin dizu eta zorrotza zabilza azken asteotan. Inauteriak zorarena handiagoa izango da, baina zenbat bider mozorrotuko zara bada?

EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Aste Santuko oporretarako bidaia txartela erostera joango zara, baina garestiegia da, beranduegi da-eta. Has zaitez udako plana egiten has zaitez, berandutu orduko!

IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Inauterietako erromerian dantzan zabilzala amama topatuko duzu parrandan. Lagunek koadrilan hartuko dute eta zuek lotuko da gau osoa, hau da hau martxa!

NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Elurretara joateko prestatuko zara: jaka lodia, txanoa, eskularruak, eskiak e.a. jantziko dituzu. Urkiolaro igo eta izotza basterik ez duzu topatuko, tabernako freskagarrietan jartzen duten izotza...



NORA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miazteko eta ezagutzeko.

Eskuratu KIOSKOAN:
Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:
Harpidedun eginda, hilabetero etxean urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONOZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-albizkaria.info

HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuma

1. Pluralean, harri bitxi mota distiratsua eta gehienetan kolorebakoa. 2. Esana. Gurtu aditzaren oina. 3. Iseka, iraina. Gauzak handiago ikusteko tresna. 4. Asiako aintzira handia. Bizkaieraz, ilobak. 5. Arrai-Maeztuko kontzejua eta hiria. Oxigenoa. 6. Kontsonantea. Iberiar. 7. Lapur, ebasle. Zer moduz?. 8. Yemengo hiriburua. Gaixotasun. 9. Istua, listua. Gloria. 10. Abaraskak, abaroak.

Goitik behera

1. Gipuzkoako kostaldeko udalerria, Debabarrenean. Josi aditzaren izena. 2. Gipuzkoako udalerria, Tolosaldean. Ume. 3. Zentzuzko. 4. Bizkaiko udalerria, Durangaldean. Bokala. 5. Emakume izena. Zegoen. Urrea. 6. Sodioa. Pinu. Ginebra. 7. Tona. Ipar Euskal Herrian, teniente. 8. Bizkaieraz, ostiral. 9. Adore emateko hitza. Iruñeko merindadeko zendea. 10. Kako. Pluralean, barazki hostotsua.

Soluzioa

K	V	Z	I	N	U	V	T	R	E
V	Z	I	N	I	V	V	U	T	
Z	I	V	G	V	N	V	S		
V	T	O	N	N	I	O	H	O	
O	K	I	R	E	B	I	J		
O	V	T	E	Z	V	Z	V		
K	V	B	O	L	T	V	A		
V	P	L	U	V	L	R	B		
R	G	N	A	V	R	V	E		
K	A	N	T	E	A	K			

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nork erantzun ditu gure galderak Aitormenak atalean?

> Aurrekoaren erantzuna: Mikel Lertxundi
> Irabazlea: **Maria Jesus Alonso Arana***
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

NORA

bilabetekariaren sei bilabeteko barpidetza doan

Zein ospakizunetan mozorrotuko gara martxoan?

- **Santa Ageda egunean**
- **Gabonetan**
- **Aratusteetan**

> Aurrekoaren erantzuna: Basoa
> Irabazlea: **Ez dago irabazlerik**
*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

berria

"Musika munduko jolastokian"
Fermin Muguruzak
prestatutako musika bilduma bikaina



MARIBE URREZTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

AREETAKO BERANTZAGI DANTZA TALDEA PORTUGALETEN, 1972

"ONDARRAK" ELKARTEAN du oinarria dantza talde honek. Elkarte 1966-05-07ko bilera batean eratu zen orduko O.A.R. (Organizacion Atletico-Recreativa) erakundearen barruan. Handik hiruzpalau urtera, 1969an, bertan behera utzi zuten baina elkarteko batzuek (Fernando Hiribarnegarai, Santi Marin (GB), Angel Mari Martinez,...) urte berean,1969an, "Berantzagi" (izena Fernandok jarri zion) dantza taldea sortu zuten. Goiko argazkian ditugu taldeko neskak Portugaleten, lehen aipatu dugun Angel Mari, bertan ezkondu zelako, Portugaleten bizi zen Trapagarango Begoña Telogaz. Ezkontza eta argazkia, beraz, egun berekoak dituzu: 1972ko azaroaren 4koak. o

Neska dantzariak:
Maria Jose Onaindia, Pepa Mendieta, Begoña Anta, Rosa Baraiazarra, Mari Karmen Mendieta, Karmen Rios eta Isabel Olañeta.

MARIBEL SALAS > aktorea eta Bilboko aratusteetako “Zarambolas”

“Nire ametssetako bat? Mundu hobeago batean sinesten dut”

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini egizu zeure burua berba bitan.
Carpe Diem.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Istorio on bat kontatzen duen edozein pelikulan.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?
Haurren mundua gustuko dut, horregaz harremana duen edozertan.

Zure hautzaroko oroitzapen bat?
Familia osoagaz udak pasatzen nituenean. Nire familia oso handia da, zentzu guztietan.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Bai, lar, baina ez dizkizut esango!

Aitor dezakezun bizio bat.
Gozokiak.

Zein da zure ametssetako bat?
Mundu hobeago batean sinesten dut, gauza batzuetan erratzen ari gara.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?
Bidaia bereziak izan ditut, baina ez litzateke barriri bidaia bardina izango... leku ugari gelditzen zaizkit oraindik ezagutzeko!

Eguna ala gaua?
Eguna, baina goizegi esnatu barik e!

Zerk ematen dizu beldurra? Zergatik?
Gaixotasunak eta sufrimenduak, osasuna garrantzitsuena dela uste dut.

Parrandarik politenak non?
Nire udako koadrilagaz, Malagako gau bero haietan...

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?
A-8 autopista, egunero ordu bat joan eta ordu bat etorri egitean, asko pentsatzeko ematen du! ○

LABURREAN— 2011. urteko aratusteetako “Zarambolas” izango da Maribel Salas aktore barakaldoarra, Bilboko Jai Batzordeak hala adostu eta gero. ETB-2ko “Vaya Semanita” telesailean egin zen ezagun Salas, baina beste hainbat behar egin ditu, bai telebistan, bai antzerki edo zineman. Informatika eta arte dramatikoak ikasi eta gero, “Una cama en el cielo” antzerki obran eman zituen bere lehenengo urratsak interpretazioaren munduan. Geroztik, ez du etenik izan: “Hospital Central”, “Euskolegas” edo “Lex” telesailak; “Pagafantas”, “La buena nueva” edo Portu Zaharrea grabatu zen “Un poco de chocolate” pelikula... Egun, aktore barakaldoarra Algortan bizi da, eta hainbat proiektu ditu buruan: laster, telesail barri batean ikusteko aukera izango dugu. Bitartean, “Zarambolas”-en pertsonaiarena egiten ikusiko dugu Bilbon!



230 erantzun jaso ditugu, baina zurea falta zaigu!

Epea luzatu dugu!

Baieztatu aldizkaria jasotzen jarraitu gura duzula, martxoaren 15a baino lehen!

uk@aldizkaria.biz

94 491 13 37

Martikoena kalea 16, 2. solairua
48992 GETXO



Martxoak 25, 19:00
Fadurako areto nagusian

HITZARMENEN IZENPETZE EKITALDIA
GETXOKO KULTUR ELKARTEETAN EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATZEKO HITZARMENA

GETXO EUSKALDUNTZEKO HITZARMENA

987i+u
KULTURA

ZATOZ!



Getxo
bizi ezazu

